


EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENEROAREN ARABERAKO
ERAGINAREN EBALUAZIOA

GIZARTE-
BAZTERKETAN ETA
POBREZIAN



2022

Izenburua: « Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa
gizarte-bazterketan eta pobrezian »

Argitaratzailea: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier kalea 36. 01005-Vitoria-Gasteiz

Egilea: Red2Red

Data: 2022ko ekainean eguneratua

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA.....	4
2. GENEROAREN ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK	7
2.1. EMAKUME ETA GIZONEN PRESENTZIA GIZARTE-BAZTERKETA ETA POBREZIA-EGOERETAN	7
2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK.....	28
2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA	39
2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA	42
2.5. BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK.....	45
3. LEGEDIA.....	47
4. DATU-ITURRIAK	48
5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK.....	51

1. TESTUINGURUA

Gaur egun, pobrezia eta gizarte-bazterketa kontzeptuak soilik materialak diren elementuetatik, funtsezko premiei buruzkoetatik, haratago doaz eta beste zenbait elementu gaineratzen dituzte, gizarte-partaidetzan edo baliabideetarako irisgarritasunean dauden gabezia sozialekin lotuta daudenak, eta horiek ere ongizate-maila eta bizi-kalitatea baldintzatzen dute. Besteak beste, lan-merkatuan, prestakuntzan edo etxebizitzarako sarbidean, eta azken horren baldintzetan, nabari den parte-hartzerik ezak eragina du, modu berezian edo aldiberekoan bazterketa-prozesuetan, galarazpenen metaketaren ondorioz ez ezik, batzuek besteekin indartzean ere gertatzen direnak bereziki.

Gure gizartean, Subirats-ek¹ dioenari jarraikiz, erabateko gizarteratzea lortzeko, pertsonen oinarrizko hiru ardatzetan parte hartu behar dute: pertsona bakoitzak ekarpen modura emandako **merkatua** edota **gizarte-erabilgarritasuna**, trukerako mekanismo modura eta balioa sortzeko ekarpen kolektiborako lotura gisa; **birbanaketa**, funtsean botere eta administrazio publikoek gauzatzen dutena; eta, azkenik, **elkarrekikotasun-harremanak**, familiaren eta gizarte-sareen esparruan hedatzen direnak.

Gizonekin alderatuz emakumeek dituzten egiturazko baldintza eskasagoek zaintza-lanen eta etxeko lanen banaketa ezberdinarekin dute zerikusia eta, horrenbestez, lan-merkatuan bizi duten mendekotasun-egoerarekin. Horrek modu adierazgarrian murrizten du emakumeek errenta sortzeko duten ahalmena, eta baita gizarte-egitura ezberdinetan parte hartzekoa.

Pobreziaren feminizazio kontzeptuak, horrekin lotutako datuetan emakumeen kopurua handiagoa dela adierazteaz gain, generoak baldintzatutako bizi-ibilbideen garrantzia aintzatestea suposatzen du. Bizi-ibilbide horiek pobrezia- eta zaugarritasun-egoera ez ezik, emakume zein gizonetan ematen den eragin ezberdina ere baldintzatzen dute. Pobreziaren feminizazioak bilakaera bat dakar berekin. Ez da soilik une jakin batean gizonekin alderatuz emakumeen pobrezia-tasa handiagoa izatea, baizik eta prozesu bat dakar berekin. Esate baterako, emakumeen zaugarritasuna areagotu egiten da beren ardurapean seme-alabak dituztenean, eta are gehiago bakarrik daudenean, edo adinarekin, bereziki 65 urteko adinetik aurrera.

Genero-rolak nahiz sexuaren araberako lanaren banaketa dira bizi-ibilbideen ezaugarri hala bi sexuek enpleguarekin duten harreman motari dagokionean – orainaldiko eta etorkizuneko baliabide ekonomikoko iturri nagusi modura –, nola gizarteko beste kide batzuekin elkarrekintzan aritzeko moduari dagokionean: batzuek eta besteengandik espero dena, edo baliabideetara iristeko duten modua. Bazterketarako ibilbide hori haurtzaroan has daiteke, edo enpleguak galdu ostean edo, adibide batera, gaixotasun baten ondorioz etor daiteke.

¹ SUBIRATS Joan (Zuz.) Pobreza y exclusión social. Un análisis de la realidad española y europea. La Caixa gizarte-ekintza, Bartzelona, 2004.

Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko indar politikoek berdintasuna esparru ekonomikoan lortzea ezartzen dute berdintasunari buruzko estrategiek eta zuzentzauek datozen urteetan jarduteko lehentasun gisa. Europako Batzordearen 2020-2025 aldirako Genero Berdintasunerako Estrategiak (2020) bigarren jardueraildoan adierazten du «genero-berdintasuna duen ekonomia batean aurrera egiteko» asmoa. Estrategia honen helburuetako batzuk dira soldata-arrakala eta pentsioen arrakala hainbat ikuspegitatik lantzea edo sektoreetan parte-hartze parekidea izan dadin lortzea.

Estatuan, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrerako III. Plan Estrategikoa (2002-2025) onartu da. Plan horrek Planaren aurrekontu osoaren ia % 91 ematen dio bigarren ardatzari: Bizitzarako ekonomia eta aberastasunaren bidezko banaketa (Berdintasun Ministerioa, 2022).

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren bigarren ardatzean ekonomia-esparruari buruzko gaiak ere lantzen dira. Zehazki, II. ardatzean (Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko) adierazten da bukarazi behar den errealitateetako bat pobrezia feminizazioa dela.

Halaber, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak honako hau adierazten du 45. artikuluan egindako aldaketan: «Euskal administrazio publikoek, modu integralean, prebentziozkoan, integratuan, diziplinartekoan, koordinatuan eta pertsonak erdigunean jarrita, behar diren neurriak hartuko dituzte pobrezia eta gizarte-bazterketak emakumeengan eragin handiagoa izatearen ondorioei aurre egiteko».

Hurrengo kapituluan adierazten den moduan, ohiko neurketa-tresnetan baliatzen den genero-isuriak gizonen eta emakumeen pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurrean bizi duten desberdintzako egoera sakonki ezagutzea eragozten du, izan ere, analisirako unitateak familia-etxeak izaten dira, eta ez norbanakoak. Horrenbestez, haietan ematen den baliabideen banaketa ezberdina ikusezin bilakatzen da. Horri gehitu behar zaizkio azken krisi ekonomikoen testuingurua (2008ko nazioarteko finantza-krisia eta COVID-19aren pandemiaren eraginaren ondoriozko krisi ekonomikoa) eta austeritate-politiken aplikazioa, emakumeengan eta gizonengan eragin desberdina duena.

2008ko ekonomia-krisiak agerian utzi zuen emakumeek lan-merkatuan duten mendekotasun-egoera. Esate baterako, gizonen lana galdu ostean, emakumeek betetzen dituzten soldata eskasagoko lanak diru-sarrera iturri nagusi bilakatu dira familia-etxe askotan. Horren ondorioz, kasu batzuetan, biziraupenerako egoera sostengaezinak sortu dira, edo beste kasu okerrago batzuetan, gutxienez behar besteko bizi-baldintzak eta ongizate-maila mantentzeko gabezia egoerak.

2020ko osasun-krisiak eta haren eragin ekonomiko saihetsezinak agerian utzi dute zaintza-lanen (oso feminizatuta dauden) garrantzia, baita lan horiekin lotuta maiz gertatzen diren zirkunstantziena ere: lan-prekaritatea, ezkutuko ekonomia, zaintzaren feminizazioa eta arrazializazioa etab.

Halaber, austeritate-politikek zeregin garrantzitsua betetzen dute emakumeen pobrezia- edo bazterketa-egoeretan². Hasi berdintasunaren aldeko erakundeak desegitearekin, berdintasunaren alde esku-hartzeko esparru alternatiboak abiaraztea zailtzen duena, eta aurrekontua murriztu eta zerbitzu publikoetako langile kopurua, bereziki osasunaren edo hezkuntzaren arloan, murrizteraino, emakumeengan eragin jakin bat izanik: alde batetik, erabiltzaile modura eta, baita sektore hauetan langile gehiengo gisa ere, eta beste alde batetik, baliabide publikorik ezean «ordezko prestatzaile» modura, nagusiki errenta apalenetan, non ezin duten hirugarren pertsona bat kontratatu edo bestelako baliabide pribatu batzuetara jo. Gainera, erretiro-pentsioak eskuratzeko kotizazio-urteak areagotu beharrak eragin zuzena du lan-merkatuan sartu-irten gehiagoan eta lanaldi partzial gehiagorekin dauden emakumeengan.

Gainera, prekaritate-, marjinazio- edo pobrezia-egoerak indartu edo berrelikatu egiten dira generoa beste aldagai batzuekin batera ematen denean, esate baterako, adinarekin, desgaitasunarekin edo jatorri etnikoarekin, aldi berean. Horrenbestez, bazterketa-egoeraren analisia **sekzio arteko ikuspegitik** jorratu behar da. Horrek berekin dakar diskriminazio-modu ezberdinak pertsona batzuen kasuan aldi berean ematen direla erreparatzea, eta aldiberekotasun horrek bazterketa eta desberdintasuna sakontzea ekartzen duela ikustea.

Gainera, gida honen testuinguruan, ezinbestekoa da hainbat kolektiboren (etxerik gabeko pertsonak, familia gurasobakar amadunak edo genero-indarkeriaren biktimak) ezaugarri espezifikotik erreparatzea.

² De la Fuente, María. «Crisis, austeridad y pobreza con perspectiva de género» in Barcelona Societat. Revista de investigación y análisis social. 21. zk. Bartzelonako Udala.2017ko iraila.

2. GENEROAREN ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

2.1. EMAKUME ETA GIZONEN PRESENTZIA GIZARTE-BAZTERKETA ETA POBREZIA-EGOERETAN

Lehenik eta behin, adierazi behar da gida honetako aztergaiarekin zerikusia duten adierazleak iturri ezberdinetan ezinbestean bat etorri behar ez diren «pobrezia» kontzeptuak erabili direla. Beraz, metodologikoki hitz eginez, ez da beti posible alderaketak egitea. Haatik, dokumentuan zehar genero-ikuspegitik gogoeta egoki bat egitea ahalbidetzen duten iturriak gaineratu dira pixkanaka.

Baina, gainera, gizarte-bazterketako egoeran eta pobrezia-egoeran dauden emakumeen eta gizonen presentzia aztertzeke ezinbestekoa da aipatzea estatistika gehienetan sexuaren arabera eragin ezberdinak ezkutatu egiten direla. Neurketetan banakako ezaugarriak ez dagoenez, analisi-unitate gisa familia-etxeak lehenesten direlarik, informazio garrantzitsua ezkututzen da etxeko unitate horien barnean egiten den baliabideen banaketa asimetrikoari dagokionez. Estatistika horiek, gainera, izaera ekonomiko nabaria dute, eta pobrezia- edo bazterketa-egoeretan eragina duten beste faktore batzuk alboratzen ditu, esate baterako, baliabideetarako irisgarritasun ezberdina (ekonomikoak, lan-arlokoak, sozialak) edo denboraren erabilera ezberdinak (zaintzari eta etxeko lanei eskainitako denbora).

Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) deskribatzen duen moduan, Europa 2020 Estrategiaren arabera, pobrezian edota gizarte-bazterketan erortzeko arriskuan diren pertsonatzat hartzen dira egoera hauetakoren batean dauden herritarrak: diru-sarrera baxuekin bizi diren pertsonak; edota materialen gabezia larria duten pertsonak; edota enplegu-intentsitate oso baxuko familia-etxeetan bizi diren pertsonak (bertako lan-ahalmen osoaren % 20tik behera).


Testuinguru horretan garatzen da **AROE adierazlea** (ingelesez «At Risk of Poverty and/or Exclusion»), hots, «Pobrezia edota Bazterketa izateko Arriskuan»). Adierazle horrek, aipatutako dimentsioak barneratuz, pobrezia edo bazterketa izateko arrisku-tasa kalkulatu du. Egoera hori neurtzeko erreferentziazko adierazlea da. Bere hutsune nagusia familia-etxeetan oinarrituta neurtzen dela da, ez dago indibidualizatuta. Beraz, ez ditu familia-etxeen barnean gertatzen diren desorekak islatzen. Gainera, familia-etxeak erreferentziazat hartzean, sexuaren arabera bereizitako pobrezia eta gizarte-bazterketaren tasak ez du alde handirik emakumeen eta gizonen artean. «Pobrezia aurkako Europako Sareak (EAPN–European Anti-Poverty Network) txostenaren arabera (2021) egindako Espainiako pobrezia eta gizarte-bazterketaren adierazlearen jarraipena egiten duen pobrezia egoera, 2008-2020» izeneko txostenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren AROPE eta pobrezia-arriskuaren tasak estatu-mailako baxuenen artean bigarren postuan daude. Hala ere, adierazle horren distortsioaren eraginez, gorago esan dugunaren arabera, okerreko ondorioak atera daitezke. Horrenbestez, bestelako alderaketak neurtzeko erabilgarri izan badaiteke ere, ez da nahiko genero-inpaktua aztertzeke.

Haatik, testuinguru horretan milaka pertsona kontuan izanik sexuaren arabera banakatuta eskaintzen diren datuetan emakumeen artean bilakaera nabariagoa ikusten da egoera horri dagokionez. EAPNren arabera, 2020an, AROPE biztanleria 304.263 pertsona zen EAEn, eta horietatik 187.172 emakumeak dira, hau da, guztizkoaren % 61,5. 2008. urtetik 2020. urtera bitarteko aldia kontuan hartuta, **ARPE biztanleriaren** kopurua jaitsi egin da gizonen kasuan, 27.787 gizon; emakumeen kasuan, aldiz, igo egin da: 32.544 emakume.

EAPN erakundeak EAEn neurtzen duen AROPE adierazlearen osagaiei dagokienez, **pobrezia-arriskuan dagoen biztanleriaren** kasuan ere (EAPN, 2021) emakumeak gehiago ziren 2019an: 138.959 emakume eta 80.540 gizon. Gizonen kasuan, zifra aurreko urtekoa baino txikiagoa da (9.313 gizon gutxiago); emakumeen kasuan, aldiz, igo egin da (11.156 emakume gehiago).

2019an materialen gabezia larria duen biztanleriari –MGL– dagokionez (EAPN, 2020), 38.801 gizon eta 37.097 emakume zeuden egoera horretan. Ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, 2010ean eta 2012an izan ziren materialen gabezia larriko egoeran zeuden biztanleen kopururik txikiak; hala ere, 2013. eta 2014. urteen artean, adierazle horrek 100.000 pertsona baino gehiago zituen. Ondoren, pixkanaka behera egin zuen 2018ra arte, eta 70.000 pertsonatik behera geratu zen. Hala ere, MGL adierazle horrek gora egin zuen berriro 2019an.

1. grafikoa. Materialen gabezia larria duen biztanleriaren bilakaera EAEn (2008-2020)



Iturria: Pobrezia-egoera, pobrezia-egoera eta gizarte-bazterketaren adierazlearen jarraipena Espainian, 2008-2019 (EAPN, 2020).

Lan-intentsitate txikiko familia-etxeetako biztanleria ere –LITE biztanleria (0-59 urte)– (EAPN, 2021) aldakorra izan da azken hamarkadan; 2020an 113.559 pertsona izatera iritsi da EAEn. Sexuaren araberako azterketan ere ez da joera argirik ikusten, 2020an LITEko 70.057 emakume eta LITEko 44.234 gizon erregistratu baitira guztira. Horrek esan nahi du aurreko urtearen aldean jaitsiera handia izan dela, urte horretan LITEko 91.599 emakume eta 67.350 gizon zenbatu baitziren. Garrantzitsua da adieraztea LITE biztanleriaren portzentajeak nabarmen egin zuela gora 2010-2013 bitartean, eta 2009ko krisiaren aurreko zenbakia bikoiztu egiten du, krisiak enpleguaren baldintzetan izandako eragina islatuz. Urte horretatik 2016ra arte, LITE biztanleriaren ehunekoa portzentajezko ia 9 puntu (pp) igo zen: % 5,5etik % 13,7ra. 2017an eta 2018an, % 7,7ra eta % 7,1era jaitsi zen, hurrenez hurren; 2019an % 10,3ra igo zen berriro, eta 2020an % 7,4ra jaitsi zen berriro.

Datu indibidualizatu bat denez, **persona bakoitzeko batez besteko errentaren** adierazleak errealitatera gehiago egokitzen den informazioa ematen du. EUSTAT erakundearen Errenta Pertsonala eta Familiarena Estatistikan (2021) jasotzen den moduan, alde adierazgarriak daude emakumeen eta gizonen batez besteko errentan EAEn. 2019an, gizonen batez besteko errenta 27.885 eurokoa zen urtean eta emakumeena 17.731 eurokoa. Alde handi hori, ikusiko dugun moduan, emakumeek lan-merkatuan (baliabide ekonomikoen iturri nagusia dena) dituzten baldintza okerragoen ondorio izan daiteke.

Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak egindako **Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkestak (PGEI)** EAeko familia-etxebizitzetan dauden pobrezia-egoera ezberdinei buruzko informazio sakonagoa eskaintzen du.


Bertan lau pobrezia-kategoria bereizten dira: metatze-pobrezia, mantenu-pobrezia, benetako pobrezia eta ongizate-gabezia:

- **Metatze-pobreziak** – *ondarea eta bizi-baldintzak epe luzera begira*– egoera espezifiko bat baino egoera orokor bat adierazten du; hain zuzen ere, behar adinako bizi-mailari epe ertain eta luzean eusteko beharrezkoak diren kontsumo-ondasun iraunkorrak lortzeko prekaritate-egoera diferentziala, bereziki, etxebizitza egokia eta ongi hornitua lortzeko gaitasunari dagokionez, betiere gutxieneko bizigarritasun-arauak betez. Metatze-pobreziak, epe ertaineko eta luzeko prekaritatea agertzeari lotuta dagoen neurrian, zerikusia du, halaber, familia-etxeek, diru-sarrerei lotutako krisi-egoerak sortzen direnean edo larrialdietan bizitza normalizatua egiten jarraitu eta, horrenbestez, gutxieneko segurtasun ekonomikoa izan dezaten, gutxienez behar diren ondare-baliabideak metatzeko dauzkaten arazoekin.
- **Mantenu-pobrezia** – *ohiko gastuak*– baliabide ekonomikoen eskasia-egoerarekin loturik dago; hain zuzen ere, epe laburrera oinarrizko premiak (bereziki elikaduraren, etxebizitzaren, jantzien eta oinetakoen gastuekin lotutakoak) betetzeko adina baliabide ez izatearekin. Pobrezia-arriskuan egoteko, pertsonak, familiek edo familia-etxeek, erreferentzia-aldi jakin batean, oinarrizko beharrei aurre egiteko adierazitako atalaseak baino diru-sarrera urriagoak izan beharko dituzte.
- **Benetako pobreziak** biltzen dituen egoeretan, pobreziaren mantentze- eta metatze-dimentsioetan ageri diren oinarrizko premiak nahikoa ez asetzeko arriskua ez dago nahikoa konpentsatuta eguneroko bizitzan, pobreziaren bizipenetik aldentzeko adinako gutxieneko ongizatea eskuratzeko.
- Mantenuari dagokionez, **ongizate-gabeziarekin** loturiko arazoak baliabide ekonomikoen eskasia-egoera adierazten du, epe laburrera, gizarte jakin batek ezarritako gutxieneko ongizate- eta erosotasun-mailak mantentzeko beharrezko gastuei aurre egiteko. Praktikan, gizarte jakin horren bizimodu, ohitura eta jarduera arruntetan parte hartzea ahalbidetzen dute, gutxieneko baldintzetan bada ere. Ongizaterik ez izateko arriskuan dauden pertsonak, familiek edo familia-etxeek, erreferentzia-aldi jakin batean, bizi diren gizartean espero diren gutxieneko ongizate-mailak izateko adierazitako atalaseak baino diru-sarrera gutxiago dituzte.

PGEI Inkestak eskaintzen dituen datuetan alde adierazgarriak daude emakumeak familiaburu diren familia-etxeen eta gizonak familiaburu diren familia-etxeen artean. Hala, emakumeen kasuan pobrezia mota guztietan eta aztertutako epealdi osoan zehar balio handiagoak erakusten dituzte: 2008-2020. 2018arekin alderatuta, 2020ko balio guztiek hobera egin dute, benetako pobrezia kasuan izan ezik, gizonen artean portzentajezko 0,2 puntuko igoera izan baita.

Ondorengo grafikoetan Benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren bilakaera erakusten da, familia-etxeeko familiaburuaren sexuaren arabera (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, 2021).

2. grafikoa. Biztanleria familia-etxebizitzetan, familiaburuaren sexuaren arabera. Intzidentzia %-tan. 2008-2020. EAE



Iturria: 2020ko PGEI (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, 2021).

PGEI inkestak erakusten duen beste alde argigarri bat **nazionalitatearekin** dago lotuta, sexuaren arabera banakatuta ez badago ere. Horrela, atzerriko pertsonak bizi diren familia-etxeetako pobrezia-portzentajeak askoz ere handiagoak dira atzerrikoak ez diren pertsonak bizi diren familia-etxeetakoak baino pobrezia kategoria guztietan. 2020an, mantenu-pobrezia dagokionez, portzentaje hori % 41,9koa zen eta atzerrikoak ez ziren pertsonak bizi ziren etxeetakoak, aldiz, % 5,5koa; metatze-pobrezia dagokionez, % 2,9 eta % 0,2, hurrenez hurren; benetako pobrezia kasuan, % 38,0 eta % 3,2, hurrenez hurren; eta benetako ongizate-gabezia dagokionez % 56,1 eta % 6,0, hurrenez hurren.

Adina faktore erabakigarria da pobrezia- eta bazterketa-arriskuari dagokionez. Hala ere, AROPE txostenak (EAPN, 2021) adierazten du «adinaren garrantziak behera egiten duela urte urte, AROPEren arrisku-faktore gisa. Hala ere, hori ez da soilik gertatu adinaren arabera tasak oro har hobetu direlako, AROPE adinekoen artean asko hazi delako ere gertatu da. Ildo horretan, 16 urtetik beherako eta 65 urtekoen edo gehiagoko arteko aldea (2015ean portzentajezko 20 puntukoa izatera iritsi zen) 10,7 punturaino murriztu da gaur egun».


Horrela, estatu-mailako AROPE datuek erakusten dute 2020an³ adin-taldearen arabeko pobrezia eta/edo gizarte-bazterketaren tasen ehunekoak handiagoak direla 16 urtetik beherako gazteen artean (% 31,2), eta pobrezia-arriskuaren tasa txikiena **65 urtetik gorako pertsonen** artean dagoela (% 20,5). Hala ere, adin-tarte horretan igo da gehien azken urteetan, portzentajezko 7,5 puntu baino gehiago igo baita kuota txikiena izan zuenetik, 2014. urteaz geroztik, alegia (% 12,9).

65 urtetik gorako pertsonen taldeari dagozkion datuak eta bilakaera oso desberdinak dira gainerako adin-tarteekin alderatuta, batez ere talde horrek diru-sarrera finkoak dituelako. Adin-tarte horretako pertsonen diru-sarrerek (oro har, pentsioa) eta, beraz, horien pobrezia- eta/edo bazterketa-egoerak lotura handiagoa dute erabaki politikoekin beren ahalegin pertsonalarekin baino; gainerako adin-taldeetan, ordea, alderantziz gertatzen da.

Bestalde, AROPE tasan dagoen **sexuaren arabeko desberdintasuna** bereziki nabaritzen da adin handieneko tartean. Adineko emakumeen tasa gizonena baino handiagoa izan da beti. 2014az geroztik, estatu-mailako aldea portzentajezko 2,5 puntu ingurukoa zen, urte arteko aldaketa txiki batekin, baina 2020an arrakala portzentajezko 3,8 puntu izatera iritsi zen. Ondorengo grafikoan ikusiko den bezala, EAEn emakumeak edo **65 urtetik gorako** gizonak familiaburu dituzten familia-etxeen arabera, aldeak daude 2020ko PGEI inkestan aztertutako pobrezia-tipologia guztietan, emakumeen zifrak handiagoak baitira guztietan. 2020an, mantenu-pobrezia dagokionez, intzidentzia % 7,2koa zen 65 urtetik gorako emakumeen artean eta % 1,9koa gizonen artean. Metatze-pobrezia % 0koa zen emakumeen artean eta % 0,2koa gizonen artean. Benetako pobrezia-egoeran emakumeen % 1,7 eta gizonen % 1,1 zeuden. Eta benetako ongizate-gabezia emakumeen % 4,9 eta gizonen % 3. Metatze-pobrezia egoeran soilik dute 65 urtetik gorako emakumeek gizonen baino intzidentzia txikiagoa 2020an. Hala ere, bai gainerako pobrezia-egoeretan, bai urte arteko bilakaeran, emakumeen intzidentzia beti mantendu da gizonen intzidentziaren gainetik.

³ 2020ko AROPE txostenak (EAPN, 2021) ez ditu AROPE datuak sexuaren adinaren arabera bereizten.

3. grafikoa. 65 urtetik gorako pertsonen bizi dituzten benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren bilakaera, sexuaren arabera. EAEko intzidentzia %-tan (2008-2020)




Iturria: 2020ko PGEI (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, 2021)

Adin-tarte horretan daude alderik handienak emakume eta gizonen artean. Arrazoi nagusia emakumeek eta gizonak jasotzen dituzten pentsioen zenbateko desberdinak dira. Alde hori, gainera, urtetik urtera igo egiten da termino absolutuetan, eta bereziki lan-baldintzen ondorioz gertatzen da (adibidez, zuzendaritzako eta erantzukizuneko lanpostuetatik kanpo geratzea, soldata-arrakala edo kotizazio-ibilbide laburragoak eta etenak), edo emakumeek ordaindutako lan-ibilbiderik ez izatea.

EAEn eremuan adinaren arabera egindako azterketarekin jarraituz, PGEI inkestak deskribatzen dituen pobrezia-kategoria guztietan intzidentzia nabarmen handiena duen adin-tartea **15 urtetik beharagoena** da, Estatuan gertatzen denaren antzekoa, lehen aipatu bezala.

4. grafikoa. EAEko benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren intzidentziaren ehunekoa, adinaren arabera (2020)



Iturria: 2020ko PGEI (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, 2021).

Estatuko gainerako lurraldeekin eta Europarekin alderatuz haurren pobrezia-indizeak baxuak badira ere, EAEn 2008-2020 aldian gehien igo direnak dira.

Save the Children erakundearen arabera (2021), Espainia hirugarren lekuan dago haurren pobrezia-tasa handienak dituzten Europar Batasuneko herrialdeen artean (% 31,3), eta aurreikusten du 2020tik aurrera familien eta haurren pobrezia nabarmen gora egingo duela, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorio sozioekonomikoak direla-eta.

«Geografía de la pobreza infantil en España» izeneko txostenaren arabera (Haur Pobrezia-aren aurkako Goi Mandataritza, 2021) «haur-pobrezia dimentsio geografiko handia du, eta, beraz, horri buruzko lurralde-idea izatea funtsezkoa da pobrezia horri modu eraginkorrean aurre egiteko». Funtsezko beste alderdi batzuen artean, honako hauek aipatzen ditu:

- Haur-pobrezia-aren intentsitatea handitu egiten da urbanizazio-mailarekin.
- Etxebizitza eskuratzeko aukera erabakigarria da. Etxebizitza-kostu handienak hiri-inguruneetara lotuta daude: hiri-eremuetan errenta txikiagoa duten familia-etxeek antzeko baliabideak dituzten landa-inguruneetako familia-etxeek baino diru gehiago bideratzen dute etxebizitzara, batez beste % 22 gehiago, hain zuzen ere.
- Etxebizitzaren edukitze-erregimena ere funtsezkoa da: hiriguneetan, pobrezia-arriskuan dauden haur eta nerabeen % 42,5 inguru alokairuan bizi dira, eta biztanle gutxiago dituzten eremuetan, berriz, % 27,4.


Familia-etxe bat kokatzen den ingurunea garrantzitsua da; izan ere, baliabideei eta aukerei dagokienez lurraldeen artean dauden desberdintasunek eragin positiboa izan dezakete, haurrak familia-etxeetako pobreziatik babesteko direlako, edo eragin negatiboa izan dezakete, pobrezia-aren ondorioak zabaldu egingo direlako. De facto, Haur Pobrezia-aren aurkako Goi Mandataritzak (2021) adierazi bezala, pobrezia-indize handienak dituzten inguruneek emaitza txarragoak dituzte osasunean eta hezkuntzan.

Save the Children erakundeak, 2017. urtean, datu garrantzitsuak erakutsi zituen EAEko eta estatuko **haur-pobrezia-aren** egoerei dagokienez (Save the Children, 2017), eta adierazi zuen Euskadin haur-pobrezia **guraso bakarreko familia-etxeetan (gehienak emakumez osatuta daude)**, eta atzeritarren familia-etxeetan izaten dela.

Azterlan horretan, **gizarte-babesak haurren arteko desberdintasunean duen eraginari** buruzko informazioa ere ematen da. Autonomia-erkidegoetako prestazioei dagokienez, EAE da haurrak babesteko sisteman gehien gastatzen duten erkidegoetako bat, eta kotizazio gabeko laguntzek batik bat errenta txikienei ekartzen diete onura. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak (DSBE), Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriak (EPO) eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) errenta gutxien dituzten familietan pobrezia-egoera batzuk arintzen laguntzen dute, eta, aipatutako azterlanaren arabera, DSBEak eragin nabarmena du guraso bakarreko familietako eta atzerriko familietako haurengan. 2014an haurren pobrezia-tasa larria transferentzia autonomikoen aurretik eta

ondoren, haurren artean oro har % 15,4 izatetik % 8,8 izatera pasa zen; guraso bakarreko familietan % 42,4 izatetik % 11,2 izatera, horrek esan nahi du % 31 baino gehiago jaitsi zela; eta jatorri atzeritarra duten familietan % 52,2 izatetik % 32,9 izatera, horrek esan nahi du tasa % 19 baino gehiago jaitsi zela. EAE da, gainera, seme-alabak dituzten familientzat laguntza ekonomiko unibertsalak mantentzen dituen erkidego bakarra.

5. grafikoa. Haur-pobrezia larriaren tasa autonomia-erkidegoen transferentzien aurretik eta ondoren. EAE. 2014



Iturria: Save the Children. «Desheredados. Desigualdad infantil, igualdad de oportunidades y políticas públicas» 2017.

Haur-pobrezia oinarriko premia materialak asetzeko gabezia islatzeaz gain, harreman motako premiekin eta baliabideetarako irisgarritasunarekin lotuta dauden gabeziak ere islatzen ditu. Horren ondorioz, epe luzera gizarte-bazterketa eta pobrezia ekar ditzakeen dinamika batean sar daitezke, gizarteratzeari eta gizarte-trebetasunak eta trebetasun emozionalak eskuratzeari eragiten diolako.

Hastapeneko desberdintasun-egoera horrek prestakuntzarako sarbidea baldintzatzen du, ikaskuntza-baldintza okerragoak dakartza eta arrisku-joerak eta osasun-arazoak izatea sustatzen du. Horren ondorioz, mugatu egiten dira argi eta garbi bizitza-aukerak oro har eta lanerako aukerak zehazki. «Pobrezia gorpil zoro» mugatu horretatik ateratzeko ezintasunak pobrezia- edo bazterketa-egoera belaunaldi batetik bestera igarotzea dakar –pobrezia belaunaldien arteko transferentzia–. Bestalde, literatura zientifikoak erakusten duenez, haurtzaroko politikak bultzatzen direnean, itzulera positibo bat, kutsu soziala eta ekonomikoa duena, gertatzen da.

Deskribapen orokorra egin ondoren, funtsezkoa da sexuarekin elkarrekintzan diren eta generoari berezkoak zaizkion bazterketa-egoerak bultzatuz era askotako diskriminazioa sorrarazten duten aldagai sozio-demografiko jakin batzuei ez ezik, kolektibo batzuen ezaugarri bereziei ere erreparatzea.

- Familia gurasobakar amadunak

Aurretiaz aipatu den moduan, **guraso bakarreko familia** da bazterketa- eta pobrezia-arrisku handienetakoa (eta gero eta handiagoa) duen kolektibo bat. Familia mota horietan emakume bat izaten da familiaburu gehienetan (familia-etxe gurasobakar amadunak ere deitzen zaie). EAEn 2020an proportzioari beha, familiaburu modura emakume bat zuten guraso bakarreko familiak % 82,4 ziren eta familiaburu modura gizon bat zutenena % 17,6, EIN institutuak egindako Familia Etxeetako Inkesta Jarraituak (EIJ) adierazten duen moduan.

Pobrezia- eta bazterketa-arrisku handiago hori «Madre no hay más que una: monoparentalidad, género y pobreza infantil» izeneko txostenak (Haur Pobrezia-aren aurkako Goi Mandataritza, 2021b) egiaztatzen du. Txosten horren arabera, Espainian, guraso bakarreko 10 familia-etxetatik 8tan emakumeak dira familiaburuak, eta 950.000 haur eta nerabe inguru familia-etxe gurasobakar amadunetan bizi dira eta gainerako familia-etxeetan baino zaurgarritasun-egoera handiagoa pairatzen dute. Familia-etxe gurasobakar amadunek haur-pobrezia izateko duten arriskua (% 47,3) Estatuko batezbestekoa (% 27,4) baino portzentajezko ia 20 puntu handiagoa da, eta materialen gabezia laria-aren tasa Estatuko tasaren (% 6) bikoitza baino gehiago da familia-etxe gurasobakar amadunetan bizi diren haurren kasuan (% 13,5).

AROE adierazleak (EAPN, 2021b) ere erakusten du guraso bakarreko familien kasuan familia-etxe motaren araberrako pobrezia-aren edota bazterketa-arriskuaren tasa gainerakoetan baino askoz handiagoa dela; izan ere, tasa hori, Espainian, % 49,1 ingurukoa zen 2020an.

EAEn, 2020ko PGEI inkestak pobrezia-egoeren ikuspegi labur bat eskaintzen du, familia-etxearen tipologia soziodemografikoaren arabera. Ikusten denez, benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeran dauden familia gurasobakar aitadunetan bizi diren biztanle gehienak familia-etxe gurasobakar amadunetan bizi dira: % 96,2 ongizate-gabeziari dagokionez; % 96 benetako pobrezia-ari dagokionez eta % 92,9 mantenu-pobrezia-ari dagokionez. Metatze-pobrezia-ari dagokionez, familia gurasobakar amadunen biztanleriaren (% 59,9) eta familia gurasobakar aitadunen biztanleriaren (% 40,1) arteko aldea murriztu egin da; hala ere, banaketak oso desberdina izaten jarraitzen du, eta emakumeak familiaburu diren familia-etxeak zaurgarriagoak dira.

1. taula. Biztanleria familia-etxebizitza gurasobakar amadunetan, pobrezia-egoeren arabera (2020)

	Familia gurasobakar amaduna	Familia gurasobakar aitaduna	Guztira	Familia gurasobakar amaduna (%)
Mantenu-pobrezia	25.132	2.131	27.263	% 92,2
Metatze-pobrezia	531	356	887	% 59,9
Benetako pobrezia	20.528	848	21.375	% 96,0
Benetako ongizate-gabezia	32.966	1.290	34.256	% 96,2

Iturria: 2020ko PGEI (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, 2021)

2020ko PGEI inkestak aukera ematen du **familia gurasobakar amadunei** buruzko azterketa sakonagoa egiteko. Izan ere, alde batetik, «familia mantentzen duen» emakumeak lan egonkorra duen familiak eta «familia mantentzen duen» emakumeak lan egonkorra ez duen familiak bereizten ditu, eta, bestetik, lan egonkorra ez duten emakumeen artean, emakumeak 45 urte baino gutxiago dituen edo 45 urte edo gehiago dituen bereizten du. Azterketa osoagoa izango litzateke desagregazio-maila bera duten familia gurasobakar aitadunen datuekin konparatu ahal izango balitz; hala ere, alderdi garrantzitsuak ikusten dira: metatze-pobreziako egoeran dauden familia gurasobakar amadunen % 100ean emakumeak ez du lan egonkorra, mantenu-pobrezia duten familien % 89,8an, benetako pobrezia duten familien % 88,2an eta benetako ongizaterik eza duen familien % 72,7an gertatzen den bezala. Lanik ez dutenen artean, termino absolutuetan asko nabarmentzen dira 45 urteko edo gehiagoko emakume bat buru duten familiak.

2. taula. Biztanleria familia-etxebizitza gurasobakar amadunetan, pobrezia-egoeren eta familia-etxearen mota soziodemografikoaren arabera (2020)

	Lan egonkorrik gabe		Lan egonkorrekin	Lan egonkorrik gabe (%)
	< 45 urte	≥ 45 urte		
Mantenu-pobrezia	8.140	14.440	2.552	% 89,8
Metatze-pobrezia	232	299	0	% 100
Benetako pobrezia	6.308	11.797	2.423	% 88,2
Benetako ongizate-gabezia	8.804	15.160	9.002	% 72,7

Iturria: 2020ko PGEI (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, 2021)

Datu horiek erakusten dute lan-egonkortasuna izatea garrantzitsua dela pobrezia-egoeren eta bazterketaren aurrean. Hala ere, ikus daiteke lan egonkorra duten pertsonen artean ere pobrezia-egoeran dauden familia asko daudela, baita sexuaren araberrako alde handiak ere.

2020ko PGEI inkestak erakusten duenez, bakarrik bizi diren, 65 urtetik beherakoak diren eta lan egonkorra duten pertsonen artean, benetako pobrezia-egoeren intzidentzia-ehunekoa gizonena baino hiru aldiz handiagoa da emakumeetan, eta alde hori are handiagoa da mantenu-pobrezia-egoeren inguruan. Benetako ongizate-gabeziari dagokionez soilik da gizonen intzidentzia-ehunekoa emakumeena baino handiagoa, nahiz eta alde hori portzentajezko 0,8 puntu baino ez den.


3. taula. Bakarrik bizi diren, 65 urtetik beherakoak diren eta lan egonkorra duten emakumeen eta gizonen pobrezia-egoeren intzidentzia-ehunekoa

	Emakumeak	Gizonak	Aldea (pp)
Mantentze-pobrezia	10,1	1,6	8,5
Metatze-pobrezia	0,0	0,0	0,0
Benetako pobrezia	3,9	1,1	2,8
Benetako ongizate-gabezia	6,2	7,0	-0,8

Iturria: 2020ko PGEI (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, 2021).

2019an, estatuan, familia gurasobakar amadunen buru ziren emakumeen % 29 lan-merkatutik kanpo zeuden: langabezian (% 21), jarduerarik gabe (% 4) edo etxeko lanak egiten (% 4). Portzentaje hori % 17 da familia gurasobakar aitadunen kasuan. Lan-merkatuari dagokionez, familia gurasobakar amadunen egoerak **okerrera egiten du, ondorengoez gain beste pertsona batzuk ere badituzte beren ardurapean**. Emakume horien % 41 lan-merkatutik kanpo daude, gizonak familiaburu dituzten beste bizikide batzuk dituzten familia-etxeen kasuan, aldiz, portzentajea % 20 da (Haur Pobreziaren aurkako Goi Mandataritza, 2021b).

6. grafikoa. Estatuko familia-etxe gurasobakar amadunak/aitadunak, familia-etxe motaren eta lan-merkatuan duten egoeraren arabera (2019)



Iturria: Madre no hay más que una: monoparentalidad, género y pobreza infantil. Haur Pobreziaren aurkako Goi Mandataritza (2021b).

Zaugarritasun handiago hori egiaztatzen da Caritasek eta FOESSA Fundazioak 2022an egindako azken txostenean («Gizarte bazterketa eta garapena Euskadin»). Txosten horretan, pandemiak eragindako krisiaren ondoren dagoen erradiografia soziala jartzen du agerian, eta krisi horrek lan-merkatuan eragin duen astinaldi berezia azaltzen du. 2018an ekonomikoki pertsona bakar baten mende zeuden EAEko familia-etxeen proportzioa % 2,3 zen, baina ehuneko hori % 12,9ra igo zen 2021ean, eta, horrela, egoera horien batez besteko eragina gairatu egin zen Espainia osoan (familia-etxeen % 10,3 daude egoera horietan).

Egoera hori areagotu egiten da genero-arrakalarekin. Txosten beraren arabera, gizarte-bazterketaren eragina % 15,5ekoa da ekonomikoki gizonen mantentzen dituzten familia-etxeetan, emakumeek mantentzen dituztenetan, aldiz, % 18,1ekoa. Arrakala hori areagotu egiten da familiaburu emakumea duten guraso bakarreko familia-etxeetan, gizarte-bazterketaren intzidentzia % 32 ingurukoa baita talde horretan, batez ere 45 urtetik beherako emakumeen kasuan.

Laburbilduz, enplegua da pobrezia- eta prekaritate-egoeren funtsezko baldintzatzailea, emakumeek lan-merkatuan bizi duten egoera okerragoa da, batez ere familia gurasobakar amadunen familiaburu direnena. Izan ere, hainbat faktorek, hala nola lana eta familia uztartzeak eragiten dizkien zailtasunak eta partzialtasun-tasa, behin-behinekotasun-tasa eta langabezia-tasa handiagoak direla-eta, soldata baxuak jasotzeko aukera handiagoa dute. Zaintzarako baliabide publikorik ez izateak edo baliabideok mota horretako familiek dituzten premia zehatzetara ez egokitzeak eragina du lan-merkatura sartu eta hartan mantentzeko orduan.


Guraso bakarreko familiek dituzten zailtasun berezien beste adierazle bat **materialen gabezia larria (MGL)** da. EAPNren arabera (2021), MGL adierazleak produktu jakin batzuk kontsumitzeko edo gastu jakin batzuk nor bere gain hartzeko zailtasuna erakusten du, eta kaltetutako pertsonak zaurgarritasun larrian daude.

Ezin izan ditugu autonomia-erkidegoen arabera bereizitako datuak eskuratu, baina ikus daiteke Estatuan alde handia dagoela familia gurasobakar amadunek dituzten gabezien eta gainerako familiek dituztenen artean, baita azken familia horiek beren ardurapean seme-alabak badituzte ere.

Haur Pobreziaren aurkako Goi Mandataritzak (2021b) adierazi du Estatuan pobrezia-arriskuaren tasa % 47,3ra iristen dela familia-etxe gurasobakar amadun bakunen artean, eta % 52,3ra igotzen dela beste bizikide batzuk dituzten familia-etxe gurasobakar amadunetan, familia-etxe guraso bakar bakunen tasa (% 25) portzentajezko 22,3 puntu eta portzentajezko 27,3 puntu handiagoa baita, hurrenez hurren, eta familia-etxe guztien batez besteko tasa (% 27,4) baino portzentajezko 20 puntu eta portzentajezko 25 puntu inguru handiagoa.

Materialen gabezia larriari dagokionez, aldeak txikiagoak dira, baina berdin-berdin hauteman daitezke. Familia-etxe gurasobakar amadun bakunetan (% 13,5) eta beste bizikide batzuk dituztenetan (% 15,7) MGLren tasak familia-etxe gurasobakar bakunetan (% 7,3) edo egoera horri aurre egiten dioten familia-etxe guztietan (% 6) ikusten direnen bikoitza baino gehiago dira bi kasuetan.

7. grafikoa. Estatuko pobrezia-arriskua eta materialen gabezia larriaren arriskua familia-etxe motaren arabera (2019)⁴



Iturria: Madre no hay más que una: monoparentalidad, género y pobreza infantil. Haur Pobrezia-aren aurkako Goi Mandataritza (2021b).

Bizi Baldintzen Inkestak (EIN, 2021b) 2020an estatu-mailan emandako datuen arabera, pertsona heldu batek eta ardurapeko haur batez edo gehiagoz osatutako familia-etxeen % 55,8k ez dute gaitasunik ustekabeko gastu bati aurre egiteko (aldiz, familia guztien % 35,4k edo ardurapean seme-alabak dituzten baina familia-unitatean bi pertsona heldu dituzten familien % 31k ez dute gaitasunik). Familia horien ia % 56 ezin dira urtean behin oporretara joan.

Ondorengo taulan Estatu osoko **familia motaren arabeko materialen gabezia larriarekin** lotutako item guztiak (%) jasotzen dira:

4. taula. Materialen gabezia larria, familia-etxe motaren arabera estatu-mailan (2020)

	Ardurapean haur bat edo gehiago duen heldu batez osatutako familiak (%)	Ardurapean haur bat edo gehiago dituzten bi helduz osatutako familiak (%)	Familiak guztira (%)
Ezin du etxetik kanpora oporretara joan gutxienez urtean astebetez	55,9	28,6	34,4
Ezin du gutxienez bi egunetan behin haragia, oilaskoa edo arraina jan	6,7	4,3	5,4
Ezin du etxebizitza tenperatura egokian mantendu	17,9	8,6	10,9
Ez du ahalmenik ustekabeko gastuei aurre egiteko	55,8	31,0	35,4
Etxebizitza nagusiarekin lotutako gastuen (hipoteka edo alokairua, gasaren ordainagiria, komunitatea, ...) ordainketan atzeratu egin da azken 12 hilabeteetan	19,5	12,1	12,2
Ezin du auto bat mantendu	13,3	3,7	4,9
Ezin du ordenagailu pertsonal bat izan	7,7	5,8	6,5

Iturria: Bizi-baldintzei buruzko inkesta (EIN, 2021b).

⁴ Haur Pobrezia-aren aurkako Goi Mandataritzaren txostenean (2021b) honako hau adierazten da: «Beste bizikide batzuk dituzten guraso bakarreko familia-etxeak ez dira kontuan hartu behar adinako estatistika-laginarik ez dagoelako».

Materialen gabeziarekin eta prekaritatearekin lotutako gainkarga- eta estres-egoerek ere ondorioak dituzte osasunean, hala ongizate fisikoari dagokionez, nola alderdi emozionalari dagokionez. 2015ean, Save the Children erakundeak egindako txosten batean (2015) honako hau adierazi zen: Ardurapean seme-alabak dituzten eta bakarrik dauden hamar emakumetik bik depresioarekin edo hersturarekin lotutako buruko nahasmenduren bat dute edo izan dute, gainerako familietan patologia horiekin lotuta ematen diren proportzioak bikoiztuz, Save the Children erakundearen txostenaren arabera (2015). Adecco fundazioaren «Monoparentalidad y empleo» izeneko txostenak (2019) egiaztatzen du **familia gurasobakar amadunetako amak zaugarriak direla osasun mentalaren aurrean**, estresa eta familia-etxeke buru izateak dakarren karga emozionala direla-eta.

Egoera horrek okerrera egin du koronabirusak eragindako pandemiaren agerpenarekin. Unicefek (2021) adierazi duenez, haurrak eta/edo nerabeak dituzten familia gurasobakar amadunek beste familia batzuek baino eragin negatibo handiagoa izan zuten COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz, eta pobrezia izateko arrisku handiena duten familia-etxeak dira. Familia-etxe gurasobakar amadunetan buru diren emakumeek egoera berean zeuden baina beren ardurapean seme-alabarik ez zuten emakumeek baino enplegu-galera handiagoa izan zuten, besteak beste, emakumeek zailtasun handiagoak zituztelako familia-erantzukizunak eta zaintza-erantzukizunak soldatapeko lanarekin uztartzeko.

- **Etixerik gabeko pertsonak**

Bazterketaren muturreko egoeretako bat **etixerik gabeko pertsonena** da. Etxebizitza gizarte-kohesiorako eta herritartasunerako oinarrizko elementu bat da eta erabakigarria da gizarteratzeko nahiz gizarte-bazterketako prozesuetan. Hura eskuratzeko aukera izatea, eta baldintza duinetan eskuratu ahal izatea, funtsezko faktore bat da bizi-garapenari eta gizarte- eta lan-arloko harremanak finkatzeari begira.

Etxegabetasuna neurtzea zaila da, ez baitago estatu-mailako egoera zein den jakiteko beharrezkoak diren datuak biltzea ahalbidetzen duen adostutako metodologiarik eta baliabiderik. Eskubide Sozialak eta 2030 Agenda Ministerioak egindako txosten baten arabera (2021), «Euskal Autonomia Erkidegoan biztanle gehien dituzten udalerrri gehienek bi urtean behin egiten dute bizitegi-bazterketa egoeran dauden pertsonen zenbaketa».

Gaueko zenbaketa horiek egiteko ETHOS (European Typology of Homelessness and Housing Exclusion) metodologia erabiltzen da. Baliabide horrek bizitegi-bazterketa larriko egoerak deskribatzeko balio du. Egoerak 4 kategoriatan bereizten dira: aterperik gabe, etxebizitarik gabe, etxebizitza ez-segurua eta etxebizitza desegokia.

Argitaratutako azken azterlanean, hau da, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko IV. Azterlana, 2018 izeneko azterlanean (Siis Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa eta Eguía-Careaga Fundazioa, 2018), adierazten da kalean lo egitea ohikoagoa dela gizonen artean, baina

biktimizazioa handiagoa dela emakumeen kasuan. Emakumeek kalean edo aterpetxeetan duten presentzia oso txikia da, baina gora egiten du ostatu ematen duten beste baliabide batzuetan. 2018ko urriko datuen arabera, EAEn kalean zeuden 430 pertsonetatik 27 emakumeak ziren, 385 gizonak eta 18 zehaztu gabeak, hau da, etxerik gabeko pertsonen % 6,3 emakumeak ziren; emakumeen presentzia % 5,4ra jaisten da probintziako hiriburuetan, baina gainerako udalerrietan % 9,6ra iristen da.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako aterpetxeak eta bestelako baliabideak kontuan hartzen baditugu, 140 emakume daude genero-indarkeriaren biktimentzako aterpetxeetan, eta 71 emakume genero-indarkeriaren biktimentzako abegi-etxeetan.

Azken urteotan etxerik gabekoei buruzko ikerketak erruz hedatu dira eta, oraindik gaiari behar bezala heltzen ez bazaio ere, gaia generoaren ikuspegitik jorratzen duen ikerketetan funtsezko alderdiak aipatzen dira, eta horiek gabe esku-hartze bat edo politika publiko bat planteatzea ez litzateke eraginkorra izango:

- **«Ezkutuko etxerik gabeko»** egoerak azaleratzen dira ikerketa horietan. Kontzeptu horren barnean sartzen dira kalean bizi ez direlako estatistiketan agertzen ez diren emakume asko, nahiz eta ez daukaten etxerik. Emakumeek gizonak baino gehiago jotzen dute laguntza pertsonal edo sozialerako sareetara (esate baterako, hirugarren pertsonekin pisua partekatze) edo barneko etxeko langile moduko lanetara. Bestalde, prostituzioak edo diru-sarrera bat edo alojamendu bat izateko harreman sexual-afektiboak izateak ere genero aldetiko kutsu indartsua dute.
- **Emakumeek indarkeria gehiago pairatzen dute (gorroto- edo sexu-delituak).** Hatento Behatokiaren arabera (Etxerik gabeko pertsonen aurkako Gorroto-delituen Behatokia) ⁵, kalean bizi diren emakumeen % 47k adierazi dute gorroto-gertakariren edo -delituen bat pairatu izan dutela eta % 25 inguruk sexu-erasoren bat. Indarkeria hori handiagoa da etxerik gabeko emakumeen kasuan; izan ere, kalean bizi diren emakumeen % 60 gorroto-delituen biktima dira, eta % 14,8k sexu-erasoa pairatu du. Sexu-erasoen edo sexu-jazarpenaren kasuan, aterpetxeetan edo beste gizarte-baliabide batzuetan ere gertatzen dira.
- **Baliabideei** dagokienez (aterpetxeak, gizarte-jangelak, etab.) hainbat alderdi ez dira kontuan hartzen, esate baterako, emakumeentzako higiene-produktuak erabilgari izatea edota erabiltzaileek segurtasunik ezarekin lotuta aipatzen dituzten egoerak.
- Gainera, emakumeak etxerik gabeko muturreko egoera batera gizonak baino neurri txikiagoan iristen badira ere, hori gertatzen denean, literatura zientifikoan adierazten denari jarraikiz, narriadura fisiko eta mentala handiagoa izan ohi da.

⁵ Estatuko Behatokia, GKE erakundearen Plataformak zuzendua, non Arartekoa Aholkularitza Batzordeko kide den

- Etxerik gabeko egoera batera iristeko modua ezberdina da emakumeen eta gizonen kasuan. Ematen diren bazterketa-ibilbideen ezaugarri sendoak sexuarekin lotutako rolak eta gizarte-balioak izaten dira:
 - o **Emakumeen** kasuan bi ezaugarri nagusi ematen dira: lehenengo ezaugarria da muturreko egoeretara neurri txikiagoan iristen direla; izan ere, joera gehiago dute gizarte-zerbitzuetara eta beste babes-sare batzuetara jotzeko; eta bigarrena da egoera horietara iristen direnen artean %26 haien aurka edo beren seme-alaben aurka eragindako genero-indarkeriarekin lotutako arrazoien ondorioz iristen direla⁶. Zentzu horretan, bizitegi-bazterketa larriari buruz Emakundek egindako azterlanean (2016) honako hau adierazten da: «hausturak eta banantzeak ahultasun-faktore garrantzitsua dira emakumeentzat, ezegonkortasun ekonomiko handiagoa baitute, bai eta bikotekide maskulinoaren diru-sarreraren mendekotasun handiagoa ere, lan-merkatutik kanpora egonez gero».
 - o Gizonen kasuan, ezinbestekoa da aipatzea **maskulinitasun tradizionala arrisku-faktore modura**⁷, laburbilduz alderdi hauetan azaleratzen dena: gizarte-sareak eta sare emozionalak izateko gaitasun eskasa; besteen aurrean «ausart» modura agertzeko jokabide arriskutsuak baitaratzea (emoziorik eza eta ausardia esleitutako eta sozialki maskulino modura balioetsitako balioen artean sartzen dira); norberaren jabe izateko eta hala izatea erakusteko premia (gizonezko hornitzailearen irudia), besteak beste, gizarte-zerbitzuetara edo laguntza eskatzera jotzerakoan uzkurrago izatea dakarrena.
 - o Halaber, ezaugarri bereziak agertzen dira LGTB kolektiboaren kasuan: RAIS fundaziotik kolektibo horretako (transexualena) pertsonen neurritz gaineke ordezkari (bereziki emakumeen artean) hautematen da eta, era berean, LGTB kolektiboko gazteen artean etxerik gabeko egoerara iristeko arrisku handiagoa.

- **Indarkeria matxistaren biktimak**

Dagoeneko aurreratu dugun bezala, dituen ezaugarri bereziak direla-eta aipatu behar den beste kolektibo bat **indarkeria matxistaren biktima** diren emakumeena da (indarkeria hori hainbat motatakoa izan daiteke: genero-indarkeria edo sexu-esplotazioko egoerak, prostituzioak edo salerosketak eragindakoak, sexu-jazarpeneko edo sexuan oinarritutako jazarpeneko egoerak, etab.); izan ere, egoera horrek gizarte- eta lan-aukerak mugatzen ditu argi eta garbi, eta horrek gizarte-bazterketa edo pobrezia ekar dezake. Biktimaren ezaugarriak (autoestimua eskasa, osasun-maila eskasagoak, beldurra, etab.) gizartearen duten posiziotik haratago badoaz ere, baliabide materialik eta gizarte-baliabiderik gabe egoteak are gehiago zailtzen du gizarteratze-prozesua. Mendekotasun ekonomikoa, oso ohikoa bazterketa-

⁶ RAIS Fundazioa. *Gizarte-berrikuntza etxerik gabeko pertsonekin*.

⁷ Juan Blanco López «Hombres, las masculinidades como factor de riesgo. Una etnografía de la invisibilidad». *Doktorego-tesia*.

edo pobrezia-inguruneetan, zaugarritasunarekin lotutako beste elementu bat da biktimentzat. Indarkeriazko harreman batetik ateratzeko prozesu neketsua moteldu egin dezake eta enplegu bat bilatzeko zailtasun gehigarria dakar (adibidez, aldez aurretik sekula ez bada lanik egin), are gehiago ardurapean seme-alabak izanez gero.

Biktimaren bizitzako alderdi ezberdinetan indarkeria horrek duen eragina ezagutzeak kolektibo honek, gizarteratzeari eta pobrezia-aren aurkako borrokari dagokionez, dituen premia zehatzak identifikatzea ahalbideratzen du. Enpleguaren esparruan –eta, beraz, alderdi ekonomikoan– duen **eragin espezifiko**a nahiz etxebizitzari buruzko adierazle zehatzak oso garrantzitsuak dira baliabide gutxien dituzten emakumeen artean.

Illo horretatik, interesgarria da GVEI (Gender Violence Effects Indicators / Genero-indarkeriaren Eraginaren adierazleak) proiektuaren esparruan eraturako 2015eko proposamena⁸, hurrengo alderdiak identifikatu eta horietako bakoitzean genero-indarkeriaren eragina neurtzeko adierazleak azaltzen dituenak:

- Osasunaren alderdia. Fisikoak ez ezik, pairamen psikologiko eta emozionalekin lotutakoak.
- Lanaren alderdia. Lan-eremuko ondorioek lanpostuan absentziak izatearekin, enplegua galtzearekin, bajekin edota etxebizitza aldatzearekin dute zerikusia.
- Ekonomiaren alderdia. Bereziki biktimak ez badu berezko baliabiderik edota adingabeak baditu ardurapean.
- Harremanen eta gizarte-bizitzaren alderdia. Genero-indarkeriak isolamendua sustatzen du eta, horren ondorioz, gizarte-harremanak eta familiakoak ahuldu egiten dira.
- Etxebizitzaren alderdia. Etxea uzteak, abegi-zentroetan edo beste baliabide batzuetan bizitzeak edota etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunek eragin nabaria dute biktimengan eta, aldi berean, beste alderdi batzuk baldintzatzen dituzte, esate baterako, enpleguarena.
- Legearen alderdia. Biktimek oztopoak izaten dituzte justiziaren eremuan murgiltzeko. Erruduntasun-sentimenduak, lotsak edota epaituta sentituko ez diren ingurune segururik ez izateak eragina dute salaketak ipintzeari dagokionez.

Etixerik gabeko emakumeen kasuan, bikotekideak eragindako genero-indarkeria pairatzearen ondorioz egoera horretara iristen direnen portzentajea handia da. Halaber, desgaitasunen bat duten emakumeen kasuan, edo emakume etorkinen kasuan, indarkeria-indizeak handiagoak dira.

⁸ https://issuu.com/fundaciosurt/docs/surt_gvei_proposta_indicadors_cast_f09c395119b645

- Beste kontu batzuk

Osasuna. Gizarte-bazterketak osasunari dagozkion gaietan azaleratzen den alderdi bat du. Beste faktore batzuen artean, diru-sarrera urriagoak izateak, lan-baldintza okerragoak izateak eta heziketarik ez izateak eragina dute osasunean. Osasunaren eta estatus sozial eta ekonomikoaren artean harreman zuzena dago.

Osasunari eta genero-ikuspegiari buruzko ikerketek erakusten dutenez, zaintzailearen rola garrantzi handia du emakumeen osasun-egoeran, eta baita osasun-egoerari buruzko ikuskera subjektibo ezberdinek ere. Haatik, bazterketak osasunean oro har eta, emakumeen osasunean zehazki, dituen eragin zehatzak gutxiago ikertu dira, nahiz eta horri buruz hainbat alderdi aipatzen diren:

- Laneko prekaritate handiagoa. Emakumeek norberaren osasunari erreparatzeko zailtasun gehiago dituztela adierazten dute enplegu jakin batzuek (esate baterako, etxeko lanean edo bestelako ezkutuko jarduera motetan edo kontratu prekarioak dituzten lanetan) duten lan-harreman ahularen ondorioz. Egoera horrek kontsulta-eguna eta medikuaren jarraibideak atzeratzea ekar dezake, batez ere, jarraibide horiek atsedena gomendatzen badute.
- Norberaren premien aurretik ahaideen premiak artatzeko prestutasunaren ondorioz, alde batetik lanketen gainkarga eta estresa sortzen da emakumeen artean, osasun-mailak kaltetuz, eta beste alde batetik, norberaren zaintzari muzin egiten zaio (hala gaixotasunen prebentzioan nola tratamenduetan). Bestalde, baliabide ekonomiko mugatuak osasun publikoaren estalduratik at dauden (adibidez, hortzen osasuna) tratamendu edo sendagaietarako irisgarritasuna baldintzatzen du. Horrenbestez, erabilgarri dauden baliabideak ardurapean diren adingabeei edo beste senitarteko batzuei bideratuko zaizkie, norberaren premien kaltean.

Gero eta garrantzi gehiago hartzen ari den pobrezia mota jakin bat, batez ere, ekonomia-krisitik aurrera, **pobrezia energetikoa** da. Pobreziaren kategoria espezifiko bat da, zerbitzu jakin batzuk eskuratzeko (esate baterako, gasa edo argindarra etxean) zailtasunak edo ezintasuna dakartzana. Baliabide ekonomikorik ezak baldintzatuta dago, gainera, argiaren eta gasaren prezioa gero eta gehiago garestitzen ari den testuinguru batean. Horrela, gero eta gehiago dira neguan berogailua ipini ezin duten edo horniduran mozketak izaten dituzten familiak.


Arartekoak (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Defendatzailea) adierazten duen moduan «energia ongizate komun funtsezko eta derrigorrezkoa da, herritarrek bizimodu duina izatea ahalbidetzen duena eta izaera instrumentala duena etxebizitza egoki bat izateko eskubidea egiaz bermatzeko orduan».

Europako Batzordeak (2020) 2020-2025 aldiko Genero Berdintasunerako Estrategian eta Europako Itun Berdearen esparruari dagokionez adierazi duenez, «emakumeei eta gizonei ez diete berdin eragiten klima-aldaketaren aurka borrokatzeko politika berdeek (errefuxiatu klimatikoak diren emakumeek aukera gutxiago dituzte), trantsizio garbiak (pobrezia energetikoak eragindako emakume gehiago daude) eta emisiorik gabeko garraioak (garraio publikoa erabiltzen duten emakume gehiago daude). Beraz, generoaren alderdia erabakigarria izan daiteke politika horien potentziala erabat aprobetxatzeko orduan».

Espainiako pobrezia energetikoa (Ingurumen Zientzien Elkarteak, 2018) izeneko txostenaren arabera, arreta berezia eskaini behar zaie mota horretako pobrezia pairatzeko arrisku handiagoa duten familia-etxeen tipologia jakin batzuei, hala nola bakarrik dauden adinekoak bizi diren familia-etxeei, horien artean emakumeen proportzio handiagoa baitago. Familia-etxe horietan, horniduraren deskonexio-adierazlea herrialdeko batezbestekoa baino hiru aldiz handiagoa da, eta fakturen ordainketan izandako atzerapenen adierazlea batezbestekoa baino bi aldiz handiagoa.

Pobrezia energetikoaren egoera hori islatzen duen beste datuetako bat «etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin duten» pertsonen portzentajea da. EAEn portzentaje hori % 2,7 izatetik % 7,6 izatera igaro da 2010. urtetik 2020. urtera bitarteko aldian (EIN, 2021b). Adierazle hori aldi horretako pertsonen ehunekorik altuenera iritsi zen 2013an (% 7,8), eta, ordudunik, gorabeherak izan ditu, baina beti % 5,3tik gora egon da, eta 2020an 2010-2020 aldiko bigarren portzentajerik altuena izan du.

8. grafikoa. EAEn etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin duten pertsonen ehunekoaren bilakaera (2010-2020)




Iturria: Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (EIN, 2021b)

Era berean, 2020ko PGEI inkestak alokairuaren, kredituen, hipoteken edo ordainagirien ordainketan izandako ez-ordaintzeak edo atzerapenak dituzten edo hornidura eten zaien familia-etxeen kopurua erakusten du. A

Horniduren mozketak jasan duten familia-etxeen kopuruak nabarmen egin du behera behatutako aldian, eta 2012an kopuru hori 52.413 familia-etxe izatera iritsi bazen ere, ordutik hona behera egin du, eta 17.336 familia-etxe izatera iritsi da 2020an. Hala ere, ordainketarik egin ez duten edo ordainketan atzerapenak izan dituzten familia-etxeen kopuruak nabarmen egin du gora, batez ere 2008tik aurrera, eta 2019an 141.092 familia-etxe izatera iritsi da. Urte horrekin alderatuta, 2020an 20.000 familia-etxe inguru gutxiago izan dira, 121.832 baitira.

9. grafikoa. EAEn ordainketarik egin ez duten edo ordainketan atzerapenak izan dituzten eta hornidura-mozketak izan dituzten familia-etxeen kopuruaren bilakaera (1986-2020)



Iturria: 2020ko PGEI (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, 2021).

Gasaren edo elektrizitatearen energia-zerbitzuen hornidura eteteak gehiago eragiten die baliabide gutxien dituzten pertsonei, pertsona horiek ezin baitiote fakturen ordainketari aurre egin, eta horrek gizarte-bazterketaren arriskua areagotu egiten du. Arartekoak diotenaren arabera, «persona horiek ez dituzte zerbitzu horiek jasotzen, atzeratutako gastuak eta, kasu askotan, berriz konektatzeko tasa ordaindu arte. Horrenbestez, efektu zital bat gertatzen da, hots, familia ahulenen egoera dagoeneko prekarioa larriagotu egiten da». Pobrezia energetikoak, gainera, ondorio fisiko, sozial eta psikologikoak ere baditu, eta ondorio horien eraginez, are handiagoak dira desberdintasunak.

Ezinbestekoa da genero-ikuspegitik pobrezia energetikoaren alderdi zehatzak neurtzeko adierazle berriak diseinatzea, bereizketak eginez pertsonen artean modu indibidualean, eta baita familia moten eta familiaburuko pertsonaren sexuaren arabera ere; izan ere, arestian esan dugunez, hala errenta baxuenak nahiz lan-baldintza eskasena dituztenek (emakumeak) nola guraso bakarreko familiek (kasu gehienetan familiaburua emakumea da) egoera are gehiago ahultzen zaiela ikusten dute, batez ere, ardurapean seme-alabak badituzte.

Europar Batasunak horrekin lotutako hainbat gomendio eman ditu, esate baterako, 2016ko maiatzaren 26ko Europako Parlamentuaren pobreziari eta genero-ikuspegiari buruzko Ebazpenean jasotzen den moduan. Beste alde batetik, Ingeniería sin Fronteras izeneko GKE erakundeak pobrezia energetikoari eta genero-ikuspegiari buruzko monografiko bat argitaratu zuen 2017an, izenburu honekin: «Desigualdad de género y pobreza energética. Un factor de riesgo olvidado».

Informazio hori kontuan hartzeak laguntzak eta politika publikoak diseinatzerakoan hautematen diren berezitasunak gaineratzea ahalbidetuko luke. Urrunago joan gabe, halako egoerak arintzeko diseinatutako Gizarte Bonuak (estatu-mailakoa) ez du genero-ikuspegia barneratzen «potentzialki zaugarriak diren erabiltzaileen» definizioan, eta ez ditu aipatzen adierazi ditugun inguruabarrak. Gaur egun, ohiko etxebizitzan kontsumitzaile txikientzako borondatezko prezioa (KTBP) kontratatuta izateaz gain, hainbat baldintza aintzat hartzen dira, hala nola errenta-maila, familia ugaria izatea, pentsioduna izatea edo COVID-19aren ondorioz kontsumitzaile kaltebera izatea, eta horrek lau egoera sortzen ditu bonua eskatu ahal izateko. Baldintza horien artean ez da ikusten genero-ikuspegia planteatzen duen adierazle espezifikorik, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak kontuan hartzen dituzten egoera berezietan izan ezik.

Bestalde, bada gero eta maizago aipatzen den beste pobrezia mota bat, hots, **Denboraren pobrezia**. Genero aldetiko ezberdintasunak eguneroko jardun guztietan ematen dira, baina areagotu egiten dira batez ere lan-karga orokorraren banaketan, eta emakumeek zein gizonak soldatapeko lanean eta etxeko-familiako lanean duten partaidetzan. Emakumeen irisgarritasuna eskasagoa da soldatapeko lanari so, eta etxearekin nahiz familiarekin lotutako zereginen banaketan desberdintasuna da nagusi. Egoera horrek agerian uzten du lan-esparruan sexuaren araberako banaketa erabakigarria dagoela. Horrek eragin negatiboa du, aipatu dugun moduan, emakumeen bizi-kalitateari dagokionez, besteak beste, lan-merkatura sartzearekin, lanaldi luzeagoak izatearekin eta lanen gainkarga izatearekin, osasun-egoerarekin edota gizartean eta politikan parte-hartze urriagoa izatearekin lotuta. Denboraren Erabilerei buruzko inkestek, EUSTAT erakundeak berak bezalaxe (2019), agerian uzten dute emakumeek egunean denbora gehiago ematen dutela etxeko lanetan (EAEko gizonak, batez beste, 1h 55' ematen dute etxeko lanetan; emakumeek, aldiz, 3h 6') –hori da sexuen artean alde handiena agertzen duen kategoria– eta beste pertsona batzuk zaintzen (2h 3' gizonak eta 2h 41' emakumeek), eta denbora gutxiago ematen dutela soldatapeko lanean eta prestakuntzan (7h 35' gizonak eta 6h 33' emakumeek).

Denboraren pobrezia kontzeptua bultzatzearen asmoa da, ONU Mujeres erakundeak adierazten duenez, beste alderdi bat gaineratzea pobreziaaren analisisan, emakumeentzat zaugarrien diren eremuetan denbora gutxiago izatearekin lotutako murriztapenak azaleratzeko xedez, izan ere, denboraren banaketa ezberdinak eragin bereziki garrantzitsua du beste baliabide batzuk eskasak diren testuinguruetan.


2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK

Baliabideak lortzeko orduan dagoen ezberdintasuna aipatu dugu aurreko atalean islatutako bazterketa- eta pobrezia-egoeren faktore erabakigarri modura. Horiek izaera egiturazkoa dute eta, horrenbestez, bizi-ibilbideetan eragina izan dezakete, edo zaugarritasun-egoera baldintzatu.

Datuak sexuaren arabera banakaturik, bazterketaren edo pobrezia-aren adierazpide ezberdinak erakusteaz gain, baliabideetara iristeko ahalmen eta moduari dagokionez ezberdintasun garrantzitsuak agertzen dira. Horrela, prestakuntzari edo lan-arloko prekaritateari dagokionez egoera okerragoa izatea modu adierazgarrian mugatzen du bizi-kalitatearen maila egokiak lortu edo mantentzeko ahalmena eta, pobrezia- edo bazterketa-egoeren kasu zehatzean, haietatik ateratzeko aukerak murrizten ditu.

Prestakuntzarako irisgarritasuna hertsiki lotuta dago arrisku-egoeren hedapenarekin, alderantziz proportzionala den erlazio batekin: zenbat eta prestakuntza gutxiago, orduan eta bazterketa- eta pobrezia-arrisku handiagoa. EAEn, 2020ko PGEI inkestak erakusten duenez, portzentaje handienak, pobrezia mota guztietan, familiaburu modura ikasketarik gabeko pertsona bat duten familia-etxeetan ematen dira.

10. grafikoa. EAeko benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren banaketa, erreferentziazko pertsonaren ikasketa-mailaren arabera (2020)



Iturria: 2020ko PGEI (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, 2021).

Prestakuntzarekin jarraitzeko bizigarri falta gehiago ematen da pobrezia- eta bazterketa-arriskuko inguruneetan, eta bi sexuetan eragiten badu ere, emakumeen kasuan errefortzu negatibo osagarri bat dago, etxeaz eta familiaz arduratzearekin lotzen duen genero aldetiko bere gizarte-eginkizuna betetzeko iguripenarekin zerikusia duena.

Laneratzeari dagokionez (eta lan-merkatuan parte hartzeko moduari dagokionez) hori pobrezia eta gizarte-bazterketa egoeretan eragiten duen faktore nagusizat hartzen da. Baliabide ekonomikoetarako irisgarritasun-maila baldintzatzen du; izan ere, oraineko errenta ez ezik, etorkizunean prestazio eta pentsioak eskuratzeko aukera suposatzen du; eta gizarte-partaidetzan ere eragiten du gainera.

Emakumeen enplegua eta lan-ibilbidea emakumeek ordaindu gabeko ugalketa-lanarekin, hots, **zaintzekin** eta etxeko lanarekin duten loturak baldintzatzen ditu. Emakumeak lan-merkatuan barneratuko dira ala ez, modu egonkorrean edo aldizkakotasunez, familiako premien eraginpean nagusiki, bereziki pobrezia- eta gabezia-egoeretan. Behin-behinekotasun handiagoa, partzialtasun gehiago, edo jarduera-tasa baxuagoak, funtsean ugaltzeko adinetik hasi eta adin nagusikoen zaintzarekin jarraituz. Adierazle horiek guztiak EAEn emakumeen enpleguaren ezaugarriak dira, EUSTAT erakundearen Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkestako (BJS)⁹ datuek eta EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestako (BAI) datuek adierazten duten moduan. Jarraian jasotzen dira datu horiek:

EAEko **biztanleria ez-aktiboaren** analisia bereziki adierazgarria da genero-ikuspegitik so ingurune ahuletan edota bazterketa-arriskua dutenetan. 16-19 urtekoen artean, 36,4 mila emakume ez-aktibo daude, eta 20-24 urtekoen (25,7 mila emakume) eta 25-34 urtekoen (14,1 mila emakume) artean are gutxiago. Aitzitik, 35 urtetik aurrera, jarduerarik gabeko egoeran dauden emakumeen populazioak gora egin du adinak aurrera egin ahala. Gizonen kasuan, gizonetzkoen biztanleria ez-aktiboaren jaitsiera 44 urtera arte mantendu da, eta adin horretatik aurrera ere gora egin du, baina beti emakumeen kasuan erregistratutako zenbakien oso azpitik.

Adin txikieneko adin-taldean (16 urtetik 19 urtera bitartekoak) bakarrik da gizonena baino txikiagoa jarduerarik gabeko egoeran dauden emakumeen kopurua (36,4 mila emakume) (39,3 mila gizon). Gainerako adin-multzoetan emakumeen kopurua handiagoa da. Emakumeen eta gizonen arteko alderik handiena 35 eta 44 urte bitartekoan artean dago. Adin-talde horretako pertsona ez-aktiboaren % 67,3 emakumeak dira, eta portzentajezko 34,3 puntuko aldea dute adin horretako gizon ez-aktiboaren ehunekoarekin alderatuta.

⁹ Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkestak (BJS) EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestako kontzeptu berdinak neurtzen baditu ere eta metodologikoki homologagarriak badira ere, eskaintzen dituzten tasak ezberdinak dira; izan ere, EUSTAT erakundearen lagina EINek BAI inkestan erabiltzen duena baino askoz ere zabalagoa da. Halaber, jasogailuak ezberdinak dira, horrenbestez, azken emaitza ezberdina izan daiteke. Gida honen ondorioetarako, BJS inkestatik jasotako datuak erabiltzen dira erabilgarri daudenean sexuaren arabera banakatuta EAE mailan, eta BAI inkestako datuetara jotzen da banakapen hori soilik estatu-mailan denean zilegi.

5. taula. Biztanleria ez-aktiboa, sexuaren eta adin-taldearen arabera, EAEn (2021).
Unitateak: milako pertsona eta % horizontalak)

	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak (%)	Aldea (% E-% G)
16-19 urte	36,4	39,3	% 48,1	-3,8 pp
20-24 urte	25,7	21,7	% 54,2	8,4 pp
25-34 urte	14,1	11,6	% 54,9	9,7 pp
35-44 urte	20,0	9,8	% 67,3	34,3 pp
45-54 urte	28,2	15,5	% 64,5	29,1 pp
55-64 urte	59,4	50,3	% 54,1	8,3 pp
65 urte eta gehiago	271,4	204,3	% 57,1	14,1 pp
Guztira	455,1	352,5	% 56,4	12,7 pp

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN, 2022)

Adinaren arabera areagotzeaz gain eta, berriro, ugaltze-aroetatik aurrera, mendekoak zaintzearen segidak (adinekoak edo bilobak) eragina izan dezake emakumea pixkanaka lan-merkatutik kanpo egoteari dagokionez. Datu horiek, era berean, emakumeek duten mendekotasun ekonomikoari buruzko ideia bat eman dezakete.

Jarduerarik ezaren arrazoi nagusiari dagokionez, BAIK (EIN, 2022) adierazi du biztanleria ez-aktiboaren % 78k hiru arrazoiengatik izan duela jarduerarik eza: ikasketak, erretiroa edo etxeko lanak. Sexuaren araberrako analisiak alde handiak erakusten ditu kausa horien artean, eta kausa horiek bi ikuspegitatik azter daitezke:

- Sexuaren araberrako banaketa kausaz kausa aztertzen bada (% horizontalak): emakume ez-aktiboak gehiengo handia dira etxeko lanetan aritzeagatik ez-aktibo daudenen artean (% 87,7) edo erretiroaz bestelako pentsioa jasotzen dutenen artean –gehienak gizarte-prestazioak jasotzen dituzte, aurrerago ikusiko dugunez– (% 90,4).
- Jarduerarik gabeko egoeran dauden emakumeen eta gizonen banaketa kausaren araberrera aztertzen bada (% bertikalak): emakume ez-aktiboan banaketa nahiko orekatua da; lehenengo kausa erretiroa da (emakume ez-aktiboan % 30,1), eta ondorengo kausa etxeko lanak dira (% 26,7). Gizon ez-aktiboan artean, aldiz, kausa nagusia erretiroa da (% 60,4) eta oso urrutitik jarraitzen dio beste kausak: ikasle izatea (% 19,5).

6. taula. EAeko biztanleria ez-aktiboaren ehunekoa, sexuaren eta jarduerarik ezaren kausaren araberrera (2021)

	% horizontalak	% bertikalak	
	% Emakumeak	% Emakumeak	% Gizonak
Ikaslea	% 51,9	% 16,3	% 19,5
Erretiroa	% 39,2	% 30,1	% 60,4
Etxeko lanak	% 87,7	% 26,7	% 4,8
Ezintasun iraunkorra	% 45,5	% 6,0	% 9,4
Pentsioa jasotzen dute (erretiroa ez dena)	% 90,4	% 18,5	% 2,6
Beste bat	% 47,3	% 2,4	% 3,4
Guztira	% 56,4	% 100	% 100,0

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN, 2022)

Jarduera-tasa lanean edo langabezia egonik, lan egiteko moduan dagoen 16 urtetik gorako biztanleriaren portzentajeari dagokio. 2021ean, emakumeen jarduera-tasa % 51,7koa izan zen eta gizonena % 60,9koa. Emakumeen eta gizonen arteko aldea, lehenengoen kaltetan distantzia mantendu egiten bada ere, azken urte hauetan murriztuz joan da etengabe. Adin-tarteari erreparatuz, gizonen tasa handiagoa da tarte guztietan. Bi sexuen artean alderik handiena 45 urtetik aurrera ematen da: % 51,9 gizonetan eta % 41,8 emakumeetan, hau da, portzentajezko 10,1 puntuko aldea¹⁰. Ondoren, 25 urtetik 44 urtera bitarteko adin-taldea dago, % 90,9ko tasa gizonen artean eta % 84,3ko tasa emakumeen artean (portzentajeko 6,6 puntuko aldea). 16 urtetik 24 urtera bitarteko artean, aldea portzentajezko 2,6 puntukoa da, jarduera-tasak % 30,4 baitira gizonen artean eta % 27,8 emakumeen artean. Aldeak areagotzen hasten dira ugaltzeko adinetik aurrera, eta lanak, bereziki zaintzarekin lotutakoak, beren gain hartzeari dagokionez dauden ezberdintasunak azaleratzen direnean.

7. taula. EAEko jarduera-tasa (%), sexuaren eta adinaren arabera (2021)

	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Aldea (E-G)
16-24 urte	27,8	30,4	29,1	-2,6
25-44 urte	84,3	90,9	87,6	-6,6
45 urte eta gehiago	41,8	51,9	46,5	-10,1
Guztira	51,7	60,9	56,1	-9,2

Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko Inkesta (Eustat, 2022)

Okupazio-tasak lanean ari diren 16 urtetik gorako pertsonen portzentajea adierazten du. 2021ean emakumeen okupazio-tasa % 46,4koa izan zen eta gizonena % 54,9koa. Adinaren arabera, emakumeen eta gizonen tasen arteko alderik handiena (-% 7,6 pp) 55 urteko edo gehiagoko adin-tartean dago, non gizonen okupazio-tasa % 30,5ekoa den eta emakumeena % 22,9koa. Emakumeen eta gizonen okupazio-tasen arteko aldea handitu egiten da adinean aurrera egin ahala, eta 35 urtetik aurrera gorakada nabarmena izan da; horrek emakumeen enpleguaren eta familia-beharren eskaeren artean dagoen lotura egiaztatuko luke. Zaintzek (seme-alaben, mendeko adinekoen edota biloben zaintza) protagonismo gehien hartzen duten adin-tarteetan emakumeek gizonak baino enplegu gutxiago dute.

8. taula. EAEko okupazio-tasa (%), sexuaren eta adinaren arabera (2021)

	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Aldea (E-G)
16-24 urte	21,4	23,8	22,6	-2,4
25-34 urte	71,1	73,8	72,5	-2,7
35-44 urte	77,3	84,5	81,0	-7,2
45-54 urte	78,2	85,5	81,9	-7,3
55 urte edo gehiago	22,9	30,5	26,3	-7,6
Guztira	46,4	54,9	50,5	-8,5

Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (Eustat, 2022)

¹⁰ Tasen arteko aldea bat dator eragiketa honekin: Emakumeen tasa – gizonen tasa


Landunen azterketan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdi bat sexuaren araberako banaketa da, jarduera-sektoreak eta okupazioa edo lanpostuak kontuan hartuta. Datu horiek aztertzean, ikusten da emakumeen **bereizketa horizontal eta bertikal** handia dagoela; horren ezaugarria da sektore jakin batzuetan emakumeak gehiengoa direla eta ardura- edo zuzendaritza-postuetan presentzia txikia dutela:

- Bereizketa horizontala: BAiren datuen arabera (EIN, 2022), 2021ean EAEko emakume landunen % 87,7 zerbitzuen sektorean aritzen da, eta oso presentzia txikia dute gainerako sektoreetan. Emakumeen eta gizonen banaketa aztertzen bada, ikusten da emakumeak zerbitzuen sektoreko enplegatuen ia % 60 direla.
- Bereizketa bertikala: BAiren datuek (EIN, 2022) adierazten dute 2021ean EAEko zuzendaritza- edo gerentzia-postuetan lan egiten zuten pertsonen % 31,6 soilik zirela emakumeak.

Langabezia-tasak lanerako moduan diren eta lanik ez duten pertsonen proportzioa adierazten du biztanleria aktibo osoarekin alderatuta. 2021eko azken hiruhilekoan langabezia-tasa % 8,43koa zen EAEn; emakumeen kasuan (% 7,9) gizonen kasuan (% 8,94) baino puntu 1 txikiagoa zen; egoera hori ez da oso ohikoa estatuan. Izan ere, gainerako autonomia-erkidegoetan, soilik Nafarroan dago emakumeen langabezia-tasa (% 8,39) gizonena (% 11,31) baino txikiagoa 2021eko 4. hiruhilekoan; aldiz, Estatuan emakumeen langabezia-tasa % 15,04koa zen, eta gizonena, % 11,79koa.

2011-2021 aldiko emakumeen eta gizonen langabezia-tasei erreparatzen bazaie, ikusten da biek antzeko bilakaera dutela, baina aztertutako 11 urteetatik 4tan bakarrik –2012ko 4. hiruhilekoan, 2013ko 4. hiruhilekoan, 2014ko 4. hiruhilekoan eta 2021eko 4. hiruhilekoan– langabezia-tasa handiagoa dela gizonen kasuan emakumeen kasuan baino. Gainerako urteetan, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino handiagoa izan da, eta 2020ko 4. hiruhilekoan aldi horretan izandako alderik handiena lortu da (portzentajezko 2,71 puntu).

11. grafikoa. EAEko langabezia-tasaren bilakaera, sexuaren arabera (2011ko 4. hiruhilekotik 2021eko 4. hiruhilekora)



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN, 2022)

Gainera, 2021ean batez besteko langabezia-tasa % 10,01ekoa zen emakumeen kasuan eta % 9,65ekoa gizonen kasuan. Adinaren arabera azterketak ezberdintasun batzuk erakusten ditu: emakumeen langabezia-tasa (% 29,82) gizonena (% 34,6) baino portzentajezko 4,78 puntu txikiagoa da 25 urtetik beherakoen artean, bereziki 20 eta 24 urte bitarteko artean, emakumeen eta gizonen tasaren arteko aldea portzentajezko 5,81 puntu txikiagokoa da eta portzentajezko 3,53 puntukoa 16 eta 19 urte bitarteko artean. 25 urteko edo gehiagoko pertsonen artean, emakumeen langabezia-tasa (% 8,83) gizonena (% 7,89) baino portzentajezko 0,94 puntu handiagoa da, eta 25 eta 54 urte bitarteko artean, berriz, portzentajezko 1,18 puntukoa da.

9. taula. Langabezia-tasa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (2021)

	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Aldea (E-G)
< 25 urte	29,82	34,60	32,46	-4,78
25 urte edo gehiago	8,83	7,89	8,35	0,94
16-19 urte	48,86	52,39	50,64	-3,53
20-24 urte	25,78	31,59	29,03	-5,81
25-54 urte	8,98	7,80	8,38	1,18
55 urte edo gehiago	8,33	8,20	8,27	0,13
Guztira	10,01	9,65	9,82	0,36

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN, 2022)

Behin-behinekotasuna eta **partzialtasuna** dira emakumeen enpleguari dagozkion beste ezaugarrietako batzuk. 2021ean EAEn aldi baterako kontratua zuten soldatuko langileen % 58,2 emakumeak ziren (EIN, 2022), eta ehuneko hori handitu egin da azken urteetan 2018az geroztik. Kontratu mugagabea duten soldatuko langileen artean, berriz, emakumeak % 48 dira. Bestalde, lanaldi partzialeko kontratazioa jaitsi egin da oro har EAEn 2019tik aurrera, baina emakumeen artean askoz ere ugariagoa da oraindik. 2021ean, lanaldi partzialean ziharduten landunen % 77,6 emakumeak ziren

10. taula. Soldatuko langileen (kontratu mota) eta landunen (lanaldi mota) ehunekoa, sexuaren eta lan-baldintzen arabera (2021)

		Emakumeak	Gizonak
Kontratu mota	Mugagabea	% 47,7	% 52,3
	Aldi baterakoa	% 58,2	% 41,8
	Guztira	% 49,8	% 50,2
Lanaldi mota	Osoa	% 43,3	% 56,7
	Partziala	% 77,6	% 22,4
	Guztira	% 48,5	% 51,5

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EIN, 2022)


Kontratu-modalitate horretarako aipatutako arrazoiei dagokienez, Estatuan, BAlk adierazten du emakumeen kasuan (lanaldi partzialean ziharduten emakume landunen % 50,5) eta gizonen kasuan (lanaldi partzialean ziharduten gizon landunen % 53,1) arrazoi nagusia dela ezin izan dutela lanaldi osoa lanik aurkitu. Lanaldi partziala izateko bigarren arrazoia aldatu egiten da sexuaren arabera; izan ere, gizonen % 14,5ek bide hori aukeratzen dute prestakuntzarekin jarraitzeko; aitzitik, emakumeen % 16,3k lan-bizitza adingabeen edo beste pertsona batzuen

zaintzarekin bateragarri egiteko aukeratzen dute. Are gehiago, arrazoi batzuk bereziki aztertzen badira, ikus daiteke adingabeak edo bestelako mendeko pertsonak zaintzeko lanaldi partziala duten pertsonen % 95 emakumeak direla, baita «beste familia-betebehar edo betebehar pertsonal batzuen» ondorioz lanaldi partziala dutenen % 84,4 ere.

Baliabide ekonomikoetarako irisgarritasun apalagoa, errenta-mailarekin orokorki azaldu dugun moduan, **soldata-arrakalarekin** gauzatzen da lan-arloan. Dagoeneko aipatu ditugun faktore batzuk dira soldata-ordainketan sexuaren arabera dagoen desberdintasunean eragiten duten alderdietako batzuk. Hauek dira faktore horiek: zainketek emakumeen lan-ibilbideetan duten eragina, emakumeen enpleguari gehien eragiten dion partzialtasuna eta behin-behinekotasuna, edo emakumeek lan-merkatuan jasaten dituzten bereizketa horizontala eta bertikala.

Emakume nahiz gizonen batez besteko soldatak igo egin dira 2008az geroztik (4.431,55 € gehiago emakumeen kasuan eta 4.265,17 € gehiago gizonen kasuan). Haatik, bi sexuen arteko aldea, beti emakumeen soldataren kaltetan, handia da oraindik ere, nahiz eta 2018tik 2019ra bitarte zertxobait jaitsi den. EIN institutuaren Soldaten Egiturari buruzko Inkestak (2020) adierazten duen moduan, 2019. urtean EAEn emakumeen batez besteko soldata 26.197,62 €-koa zen eta gizonena 32.529,17 €-koa (bi kasuetan Estatuko batezbestekoaren gaineratik, 21.682,02 €-koa baitzen emakumeen kasuan eta 26.934,38 €-koa gizonen kasuan). Gizonen eta emakumeen batez besteko soldataren arteko aldea ere handiagoa da EAEn (6.331,55 €) Estatuko batezbestekoarekin alderatuta (5.252,36 €). Horrek esan nahi du generoaren araberako soldata-arrakala¹¹ % 19,5koa dela (Estatuan bezala). 2008an, arrakala % 23,0koa zen, hau da, portzentajezko 3,5 puntuko murrizketa izan da.

12. grafikoa. Generoaren araberako soldata-arrakalaren bilakaera EAEn eta estatuan (2008-2019)



Iturria: Egileak egina, Soldaten egiturari buruzko Inkesta (EIN, 2020) oinarri hartuta

¹¹ Generoaren araberako soldata-arrakala = ((Gizonen batez besteko soldata - emakumeen batez besteko soldata) / gizonen batez besteko soldata) x 100

Jarduera-sektoreen araberako azterketak erakusten duenez, ekonomia-jardueraren sektorean dago generoaren araberako soldata-arrakala txikiena, 2019an % 12,2koa baitzen. Gainera, sektore horretan dago langile bakoitzeko urteko batez besteko irabazirik handiena, bai emakumeen artean (30.838,68 €), bai gizonen artean (35.120,22 €). Hala ere, 2021ean EAEn industrian lan egiten duten pertsonen % 23,7 soilik dira emakumeak (EIN, 2022).

Zaintzek emakumeen lan-ibilbidean duten eragina beste adierazle batzuetan ere ikusten da, esate baterako, zaintzengatiko eszedentzietan, gehienbat emakumeek hartzen baitituzte, edo amatasun-prestazioan; izan ere, «2020ko Zifrak: Emakumeak eta gizonak Euskadin» izeneko dokumentuan (Emakunde, 2020) adierazten den moduan, 2019an emakumeak izan ziren prestazio hori jaso zuten guztien % 98,2.

Laneratzeko arazo bereziei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 2018ko Gizarte Premien Inkestak (GPI, 2018) erakusten duenez, arazoak areagotu egin dira hala emakumeen kasuan nola gizonen kasuan 2006. urteaz geroztik. 2018an halako arazoak zituzten gizonen %5,6k (% 4,2k 2006an) eta emakumeen % 7,5ek (% 3,3k 2006an). Inkesta horrek **harreman pertsonal eta sozialetako arazoei** buruzko informazioa ere ematen du, eta, besteak beste, adierazten du 2018an familiako arretarik ezari/bazterketari, tratu txarrari, jazarpenari edo indarkeriari lotutako arazoak dituzten pertsonen artean eragina handiagoa dela emakumeen artean (% 7,7) gizonen artean baino (% 4,2).

Prekaritate-arazoak bazterketarako arrisku-faktore dira orainaldian eta etorkizunean, eta lan-baldintza okerragoen esparru orokorrean, krisiaren ondorioz larriagotu direnak, gizon nahiz emakumeengan eragina badute ere, emakumeek mendeko egiturazko posizioa dute berez lan-merkatuan, nagusiki zaintzekin lotutako erantzukizunen ondorioz; izan ere, haiek arduratzen dira oraindik zaintzez materialki eta sinbolikoki.

Aipagarria da eremu sinbolikoa; izan ere, emakumeen enpleguaren analisisan paper garrantzitsua betetzen du, «**diskriminazio estatistikoa**» izenekoarekin lotuta dagoelarik. Horrek zera suposatzen du, emakume oro, hala izateagatik, lan-merkatuan balizko amatzat hartzen dela eta, horrenbestez «prestutasun gutxiagoko» pertsona modura, nahiz eta seme-alabarik ez izan.

Gizarte-prestazioei dagokienez, Ongizate Estatuak bi babes-sistema mota ditu. Horietako bat ordaindutakoaren araberakoa, soldata-kotizazioari lotua, eta hartako onuradunak gizonak dira hein handiago batean, beren enplegu-tasa handiagoei so; eta bestea, ordaindutakoaren araberakoa ez dena, asistentziazko izaera gehiago duena, erabateko herritartasun-eskubideak bermatzen ez dituen, eta bertan emakumeen portzentajea handiagoa da.

- **Ordaindutakoaren araberako pentsioak.** 2019an, EAEn **erretiro-pentsioa** jaso duten pertsonen % 37,8 emakumeak dira, eta gizonak, aldiz, % 62,2 (Emakunde, 2020). Horrenbestez, 65 urtetik gorako emakumeen kolektiboan eragin zehatz bat dago, horien zaugarritasuna areagotzen duena, eta 65 urtetik gorakoan, sexuaren arabera banakatuta, benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren bilakaeran azaldutako zenbakietan islatzen dena.

Emakumeek, erretiro-pentsio gehiago jasotzeaz gain, jasotzen dituzten pentsioen zenbatekoak baxuagoak dira; izan ere, beren lan-ibilbideetan aldizkakotasuna handia izaten da eta kontratazioetan baldintzak okerragoak izaten dituzte.

EAEn, **alarguntza-pentsio** guztiak aintzatetsiz, pentsio hori jasotzen duten ia pertsona guztiak emakumeak dira. Hala, 2019an, % 93,4 izan ziren emakumeak (Emakunde, 2020).

EAEko erretiro-pentsioaren **batez besteko zenbatekoa**, 2019an, 1.400 € ingurukoa da gizonak jasotzaile izendatzen dituztenen artean, eta alarguntza-pentsioa, berriz, gehienbat emakumeek jasotzen dutena, ez da 900 €-ra iristen hilean (Emakunde, 2020). Horrek esan nahi du emakumeek jasotzen duten batez besteko pentsioa 933,5 € ingurukoa dela, eta gizonak jasotzen dutena, berriz, 1.545,6 € ingurukoa; horrek esan nahi du hilean 600 € baino gehiagoko aldea dagoela.


EAPNren datuen arabera (2021), EAEn 153.608 pertsonak jasotzen dute pobrea ez izateko gutxienekora (<688 €/hilean) iristen ez den zenbatekoko pentsioa. Hau da, pentsioen % 27,3 inguru **pobreziaren mugaren azpitik daude**. Alarguntza-pentsioei soilik erreparatzen badiegu, % 33 egoera horretan egongo lirateke.

- **Ordaindutakoaren arabera ez diren pentsioak. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta** (DSBE) nahikoa baliabide ez duten pertsonen oinarrizko premiak asetzerako dago bideratuta. Etxebizitzarako Prestazio Osagarriak (EPO), Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarri modura egituratzen dira, eta ohiko etxebizitza edo bizilekua alokatzeko gastuak estaltzeko ematen dira.

2019an, «2020ko Zifrak: Emakumeak eta gizonak Euskadin» izeneko dokumentuan adierazten den moduan, DSBE errentaren titular guztien % 57,1 emakumeak ziren eta % 42,9 gizonak. EPO prestazioa emakumeen % 51,3k eta gizonen % 48,7k jasotzen dute. Guraso bakarreko familientzako osagarria emakumeek jasotzen dute ia osorik (% 95,1).

DSBE jasotzen duten pertsonen adina kontuan hartuta, emakume kopurua gizonena baino handiagoa da adin-talde guztietan, 55-59 urtekoen artean izan ezik; tarte horretan, gizonak pentsio mota hori jasotzen dutenen % 52,3 baitira. 65 urtetik edo gehiagotik aurrera dago DSBE jasotzen duten pertsonen kopuru handiena, 9.210 guztira, eta horien artean emakumeak % 72,4 dira. Gainera, portzentaje bertikalei erreparatuz, ikusten da DSBE jasotzen duten emakumeen ia % 22k 65 urte edo gehiago dituztela; gizonen kasuan, aldiz, % 11,8k jasotzen dute. Hori emakumeek erretiro-prestazioa eskuratzeko aukerarik ez izatearekin eta ordaindutakoaren arabera ez den pentsioaren edo alarguntza-pentsioen zenbatekoa urria izatearekin lotzen da.

13. grafikoa. DSBE jasotzen duten pertsonak, adin-taldean arabera, EAEn (2019)



Iturria: 2020ko zifrak. Emakumeak eta gizonak Euskadin (Emakunde, 2020).

- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak** (GLL), aldizkakoak ez diren laguntzen formatuan, oinarrizko gastuei aurre egin ezin dieten eta diru-sarrera baxuak jasotzen dituzten pertsonen zuzendutako osagarri bat dira, eta sarritan DSBE errenta jasotzen duten pertsona berdinekin jasotzen dute. Emakunde ematen dituen 2017ko datuen arabera, laguntza hori jasotzen duten pertsonen % 57 emakumeak dira eta % 43 gizonak. Gaur egun, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) eta Azken Sarea Indartzen (ASI) onuradunen beharrei buruzko estatistika-azterketa berria egiten ari da¹². Adierazle horrek EUSTAT erakundeak aztertzen dituen adiera guztietan pobrezia dagozkion zenbakiek dagoeneko erakusten dutenaren osagarri da, non, ikusi dugun moduan, emakumeak gehiengoa diren.
- Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera**, estatuan 2020an onartu zena eta 20/2020 Lege Dekretuak arautzen duena, bakarrik dauden pertsonen edo oinarrizko beharrak asetzeko baliabide ekonomikorik ez duen bizikidetzaren unitate bat osatzen duten pertsonen pobrezia eta gizarte-bazterketako arriskua prebenitzeko prestazioa da. Gainera, haurrei laguntzeko osagarri bat hartzen du kontuan, eta, beraz, adingabeak ardurapean dituzten pertsonengana eta adingabeak eta errenta baxuak dituzten familia-etxeetara iritsi nahi du, nahiz eta muturreko pobrezian ez egon. Ezarri zenetik, bereziki zaugarriak diren kolektiboak estaltzeko hobekuntzak egin dira. Honako hauek dira, adibidez, kolektibo horiek: erakunde publikoen tutoretzapean dauden gazteak, ardurapean 4 adingabe edo gehiago dituzten guraso bakarreko familiak eta desgaitasunen bat duten pertsonak (>% 65).

¹² <https://www.euskadi.eus/aes-asi-informazioa/web01-s2enple/eu/>

Estatuan, Gizarteratze Sarearen arabera (2022), eragin handia izan du haurren pobrezia murrizketan, Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jaso duten 824.000 pertsonetatik % 40 inguru adingabeak baitira.

EAE¹³, 17.400 ebazpen onartu dira guztira, eta 29.259 pertsonak jaso dute Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera; horietatik 21.945 helduak ziren eta 7.314 adingabeak.

Aipagarria da 2019an murrizketa orokorra izan zela DSBE eta EPO prestazioak jasotzen zituztenen kopuruan, eta, neurri txikiagoan bada ere, baita guraso bakarreko laguntzak jasotzen zituztenen kopuruan ere. Hala ere, prestazio horien bidez, egiaztatzen da **emakumeen egoera ekonomikoa okerragoa** dela, prestazio horien onuradunen artean presentzia handiagoa dutelako, batez ere familia-etxe gurasobakar amadunentzako laguntzen artean, horien % 95 emakumeak buru dituzten familia-etxeei ematen baitzaizkie.

2018ko Gizarte Premien Inkestak (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, 2019) **gizarte-zerbitzu publikoetara jo duten familia-etxeak** erakusten ditu, sexuaren arabera bereizita, eta bertan adierazten denez, emakumea familiaburu duten etxeetan gehiago jo da zerbitzu horietara gizonak familiaburu direnetan baino, % 23,1 eta % 12,1, hurrenez hurren. Halaber, ezinbestekoa da nazionalitatearen datua ere aipatzea, sexuaren arabera banakatuta ez badago ere, izan ere, atzeriko pertsonak bizi diren familia-etxeen artean, % 30,8k gizarte-zerbitzuetara jo dute (pertsona atzerritarrak bizi ez diren familia-etxeen % 14,8 izan dira hori egin dutenak).

Etxebizitza eskuratzeko aukerak eragina dauka bazterketa-egoeretan, oinarritzko ondarea baita, eta familia-harremanak eta gizarte-harremanak garatzeko espazioa delako. Aipatu behar da atal honetan emakumeek hipoteka-sisteman sartzeko edo alokairuei aurre egiteko gero eta zailtasun gehiago dituztela, nagusiki lan-merkatuan baldintza eskasagoak dituztelako. Etixerik gabetasunaren muturreko egoerei dagokienez, Etixerik gabeko pertsoei buruzko aurreko atalean genero aldetiko berezitasunak aipatu dira dagoeneko.

¹³ Gizarteratze Sarearen 2021/12/03ko datuak

2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA

Jarraian, emakumeek eta gizonen hirugarren sektorean duten presentzia aztertuko da, baita EAEko gizarte-zerbitzuetan, Jaurlaritzan, aholkularitza-organo garrantzitsuetan eta gehiengoa duten sindikatuetan lan egiten duten pertsonen kopurua ere.

Hirugarren Sektorean emakumeen presentzia handia dago 2021ean, Lealtad fundazioak (2022) adierazten duen bezala, Hirugarren Sektoreko langileen % 76, boluntarioen % 66 eta estatu-mailako onuradunen % 60 emakumeak ziren. Haatik, portzentaje horiek ez dira neurri berean ematen gobernu-organoetako karguetan, eta horrek lan-merkatuaren bereizketa horizontal eta bertikal agerikoa islatzen du.

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiaren arabera¹⁴ (2020), **ordaindutako langileei** dagokienez, gizarte-erakundeetan ordainduta lan egiten duten pertsonen % 70,5 emakumeak dira; beraz, Hirugarren Sektorea eremu feminizatua da argi eta garbi. Izan ere, EAEko gizarte-erakundeen % 4,5ek soilik ez du emakumerik ordaindutako langileen artean. Eremu sozial-transbertsanean, ordaindutako langileen artean emakumeen presentzia % 84,4 da, eta osasunaren eremuan % 81,3; enplegu-eremuan, berriz, % 47,8. Era berean, emakumeak gehiengo handia dira mendetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen artean ematen dieten ordaindutako langileen artean (guztizkoaren % 83,6).

Gizarte-erakundeetan ordainduta lan egiten duten langileen % 32k denbora partzialeko kontratua dute eta lanaldi partzialeko 10 kontratutik 8 emakumeek dituzte. Hirugarren sektorean lan egiten duten emakumeen % 38,8k lanaldi partziala du, eta gizonen artean, berriz, % 25,3k. Gainera, lanaldi partzialeko langileen ehunekoa handiagoa da eremu hauetan: osasuna (% 46,8), hezkuntza eta aisialdia (% 74,1) eta gizarte-tranbertsala (% 58,9) eremuetan.

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak (2020) adierazten duenez, ohikoena da erakunde batek 10-50 **boluntario** izatea. **Boluntarioen** % 59,5 emakumeak dira. Osasunaren eremuan, ehuneko hori boluntarioen % 83,38raino igotzen da, eta artatutako kontingentziaren arabera, emakumeak mendetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzten langile boluntarioen % 73,4 dira.

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak (2020) ematen dituen datuekin jarraituz, **erakundeetako gobernu-organoetan** emakumeek duten presentziari dagokionez, ordaindutako langileak dituzten erakundeen % 64,8an emakumea da zuzendaria edo gerentea. Gainera, langileen % 12 inguruk erantzukizunen bat hartzen du edo karguren bat du erakundeetan. Ehuneko hori zertxobait handiagoa da gizonen artean (% 12,5) emakumeen artean baino (% 11,9)

Estatuan, elkarteetan eta fundazioetan dauden emakumezko zuzendarien ehunekoa 2020an % 47 izatetik 2021ean % 53 izatera igaro da (Lealtad fundazioa, 2022). Datua positiboa bada ere, nabarmentzekoa da **emakumeen presentzia alderantziz proportzionala dela erakundeen tamainarekin**, eta, erakunde horiek

¹⁴ Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatoki deitzen bazaio ere, **2019ko Barometroa** izeneko Txostena da. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako erakundeen datu nagusiak.

handiagoak diren heinean, GKEen botere-organotan dauden emakumeen kopurua murriztu egiten dela.

Era berean, erakundeak zenbat eta aurrekontu handiagoa izan, orduan eta emakume gutxiago daude botere-postuetan. Aurrekontua urtean 300.000 €-tik beherakoa denean, % 66k dituzte emakumeak zuzendaritzan, eta 5 milioi eurotik gorako aurrekontuak dituzten erakundeen % 35ek baino ez dute emakume bat lehendakaritzan. Egoera horrek esan nahi du **emakumeek kudeatutako funtsen kopurua** gizonak gobernatzan dutena **baino askoz txikiagoa dela**. Era berean, EAEn (Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2020) ikusten da emakumeek 12.000 €-ko edo gutxiagoko aurrekontua duten erakundeetako zuzendaritzaren % 100 betetzen dutela, baina emakumeek ez dituztela 1.500.000 €-tik gorako diru-sarrerak dituzten erakundeetako zuzendaritza-postuen % 42 betetzen.

Euskadiko elkarteetan dago emakumeen presentzia handiena zuzendaritza- edo gerentzia-postuetan (% 67,7); **fundazioetan**, aldiz, emakumeak kargudunen % 52,2 dira, eta fundazioa eta elkarteak ez diren **«beste figura juridiko batzuen»** kategorian, % 38,8 dira emakumeak. Aurrekontu aldetik bolumen handiena duten erakundeetan (urtean milioi eta erditik gorako diru-sarrerekin), emakumeek betetzen dituzte kargu guztien % 41,9.

EAEko gizarte-zerbitzuetan lanean diren pertsonen artean, EUSTAT erakundearen Gizarte Zerbitzuen Estatistikako datuen arabera (2021b), gehiengoa emakumeak dira. 2019an, langile guztien % 67,8 emakumeak ziren eta % 32,2 gizonak. Eremu profesionalari dagokionez, emakumeak % 67,6 ziren hezkuntza-erlako langileen artean; % 87,6 teknikarien artean; % 89,0 osasun-erlako langileen artean; % 83,2 zerbitzuko langileen artean; eta % 70,6 zuzendaritza eta administrazioko langileen artean. **Gobernu Kontseiluari** dagokionez, XII. legegaldian, 5 emakumez eta 7 gizonaz dago osatua, hots, emakumeen portzentajea % 42,67koa da.

Gobernuko Lehendakaritzan:

- Lehendakaria gizona da.
- Idazkaritza Nagusietan % 33 emakumeak dira (2 gizon eta 1 emakume)
- Zuzendaritzetan 4 emakume eta 6 gizon daude; horrek esan nahi du emakumeak % 40 dira.
- Ordezkaritzetan emakumeak % 40 dira (2 emakume eta 3 gizon).

Jaurlaritzaren barnean, gida honetako gaiarekin lotura izateagatik, Lan eta Enplegu Saila eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila nabarmentzen dira.

- **Lan eta Enplegu Saileko** burua emakumea da. Sailburuordetzetan 1 gizon eta 1 emakume daude, eta Zuzendaritzari dagokienez, emakumeen presentzia % 50ekoa da (3 emakume eta 3 gizon).
- **Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, aurrekoak bezala**, emakume bat du buru. Sailburuordetzak gizon batez eta bi emakumez osatuta daude eta Zuzendaritzetan ere emakumeek presentzia handiagoa dute; zehazki horien % 54,4 zuzentzen dituzte (6 emakume eta 5 gizon).

Organo Aholku-emaileei dagokienez, bereziki garrantzitsuak dira:

- **Euskadiko Lan Harremanen Kontseilua** sindikatu-konfederazioen eta enpresa-konfederazioen arteko etengabeko elkarrizketa- eta topagune-organo gisa eta Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren arloko esparru sozial eta lan-arloko organo aholku-emaile gisa sortu zen.
 - Lehendakaria gizona da eta idazkari nagusia emakumea. Sindikatuek izendatutako kideen artean % 83 emakumeak dira (5 emakume eta 1 gizon) eta patronalak izendatutakoen artean % 28,6 (2 emakume eta 5 gizon).
- **Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea** Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren erakunde aholku-emailea da, eta interes ekonomiko zein sozialek Euskadiko politika ekonomikoan eta sozialean parte har dezaten lortzea du helburu.
 - Presidente emakumea da eta idazkari nagusia ere emakumea da. Izendatutako kideen proportzioa % 37,5 da emakumeen kasuan eta % 62,5 gizonen kasuan (12 emakume eta 20 gizon).

Gehiengoa duten sindikatuei dagokienez, EAEn dauden lauretatik (CCOO, ELA, LAB eta UGT), 2020an soilik batean (LAB) da emakumea idazkari nagusia. Batzorde betearazleei dagokienez¹⁵, emakumeak, batez beste, batzorde horien % 56,9 dira, hau da, gehiengoa duten 4 sindikatuetan batzorde horietako kide diren 51 pertsonetatik 29 emakumeak dira: % 72,7 CCOOn, % 58,3 ELAn, % 57,1 UGTn eta % 42,9 LABen (Emakunde, 2020).

¹⁵ 2020ko zifrak. Emakumeak eta gizonak Euskadin. Emakunde, 2021.

2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

Generoak gizonek eta emakumeek modu bereizian pairatzen duten pobrezia motari ezaugarri jakin batzuk emateaz gain, erabakigarria da **bazterketa-ibilbideen** konfigurazioari dagokionez. Sexu bakoitzak esleituta dituen gizarte-arloko **rolek** (horien eraikuntza da genero izendatzen dena) ezartzen dute norik egin behar duen gauza jakin bat, noiz eta non egin behar duen, eta batzuentzat zein besteentzat hainbat iguripen finkatzen ditu. Emakumeengandik espero da baliabide afektiboak eta emozionalak eman ditzatela eta zaintzez arduratu daitezela gehienbat; gizonengandik, berriz, familiari baliabide ekonomikoak ematea espero da («gizonezko hornitzailearen» irudia). **Lanaren sexuaren araberako banaketak** berekin dakar emakumeak egiturazko lan-merkatuan mendeko egoeran izatea, eta egoera horrek pobrezia- edota bazterketa-inguruneetan zaugarritasuna areagotu egiten du.

Bestalde, zaintzaren ardurua handiena bere gain hartzearen ondorioz, emakumeek gizonek baino askoz ere maizago izaten dute ardurapean dituzten seme-alaben erabateko erantzukizuna, eta hori, batez ere guraso bakarreko familietan ikusi dugun moduan, pobreziarako arrisku-faktore bat da.

Feminitate eta maskulinitasun tradizionalak pisu espezifiko bat dute pobrezia- eta bazterketa-inguruneetan. «**Feminitate tradizionaletik**» bakarka hartzen dituzte bere gain zaintza-lanak, lehenik eta behin gizarte-manuen indarraldia bertan adierazten delako modu gailenean, eta bigarrenik, hartaz ez arduratzeko asmoa izan arren, baliabiderik (ekonomikoak eta sozialak) ez izatearen ondorioz «kanpora bideratzea» ezinezkoa izateagatik. Horren ondorioz, bikotearekiko mendekotasun ekonomikoa sortzen da, eta etxeen barnean boterearen banaketa asimetrikoa gertatzen da, emakumeen kaltetan. Testuinguru horretan emakumeen enplegua subsidiariorat jotzen da, gizonezkoaren soldata nagusiaren laguntza gisa. Are gehiago, zenbaitetan, ez da desiragarritzat ikusten; izan ere, gizonezkoak hornitzaile modura duen ahalmena gutxitzea dakar, eta zaintzailearen eginkizun nagusitik desbideratzea.

Emakumeen **lan-ibilbideek** garrantzi handia dute zaintza-lanak beren gain hartzeko erantzukizunean, eta horren ondorioz, enplegua lortzeko aukera gutxiago dute edo baldintza eskasagoetan eskuratzen dute. Inguruabar horiek errenta sortzeko eta ongizate-maila nahikoa lortzeko gaitasuna nabarmen mugatzen dute, gidan zehar adierazi den bezala. Etxeko lanei eta familiari denbora gehiago eskaintzeak lan-arloa alboratzea suposatzen du, eta baita norberaren zaintzarekin eta aisiarekin lotutako denbora uztea ere, politikan eta gizartean parte-hartzeko denbora alboratzeaz gain. Horren guztiorren ondorioak gizarteko alderdi ezberdinetan eta bizi-kalitatean islatzen dira. Gainera, emakumeek betetzen duten ugalketa-zeregina aitortua ez dagoenez, naturalizat hartzen delako, ez da aintzatesten, eta ikusezin mantentzen da estatistika ofizialetan eta esfera sozialean ez du baliorik.

Gizonezkoen kasuan «**maskulinitasun tradizionala**» arrisku-faktoretzat har daiteke. Gizonak muturreko pobrezia-egoeretara emakumeak baino hein handiagoan iristen dira, esate baterako, etxerik gabetasunera. Kasu honetan, **bazterketa-ibilbide maskulinoak** jardun arriskutsuak baitaratzeko portaerekin daude lotuta (droga-mendekotasunari, alkoholismoari eta lan-istripuei dagokienez indize handiagoak agertzen dituzte). Halaber «ausardiaren» eta «indarraren» ideiarekin lotzen da, horiek sexu maskulinoari esleitutako iguripen eta balioen artean sartzen baitira. Maskulinitasun tradizionala, era berean, «gizonezko hornitzailearen» ideiarekin dago hertsiki lotuta («mendeko emakumearen» aurrean), arestian aipatu den eran. Baliabide ekonomikoak lortzeko erantzukizuna esleitzen zaio. «Seme-alabez ez arduratzearen» ondorioz emakumeen kasuan gizarteak zigortu egiten duen moduan, gizonen kasuan «familia mantentzeko gai ez izateak» zigortzen du. Modu horretan, gabezia ekonomikoak edo bestelako gabeziak aipatzeko orduan bi sexuak uzkur agertzen badira ere, gizonen kasuan horrek gizarte-zerbitzuetara edo laguntza eskatzera gutxiago jotzea eragiten du, «norberaren jabe izateko eta hala izatea erakusteko premiaren» ondorioz.

«Maskulinitasun tradizionala» horrek emakumeengan duen arrisku-takoa bat **indarkeria matxista** da. 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarak gabe bizitzekoan, adierazten arabera: «Desparekotasunaren, eta emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman asimetrikoen ondorio da emakumeen kontrako indarkeria matxista». Gidan hainbat aldiz adierazi da indarkeria matxistaren modu desberdinen eta gizarte-bazterketaren edo pobrezia-aren artean dagoen harremana. Laburbilduz, indarkeria matxista gizarte-bazterketari dagokionez aztertzeko, ikuspegi bikoitza behar da:

- Alde batetik, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek, indarkeria horren ondorioz, eragin handia dute beren lan- eta gizarte-aukeretan, eta horrek pobrezia- edo bazterketa-egoerak eragin ditzake.
- Bestalde, pobrezia-egoeran edo bazterketa-egoeran dauden emakumeek, bereziki etxerik ez duten emakumeek, zaurgarritasun handiagoa dute indarkeriaren aurrean. Esan bezala, etxerik gabeko emakumeek gizonek baino gehiago pairatzen dituzte gorroto-delituak (kalean bizi diren emakumeen % 60) eta sexu-erasoak (% 14,8). Sexu-indarkeria hori pobrezia-egoeran edo gizarte-bazterketako egoeran dauden eta aterpetxeetan edo bizitegiko beste gizarte-baliabide batzuetan bizi diren emakumeetara ere hedatzen da.

Emakumeei dagokienez, gizarte-zerbitzuetara gehiago jotzearen arrazoia ez da soilik gutxiago estigmatizatuta dagoela; izan ere, ordaindutakoaren arabera ez diren prestazioetara, hots, laguntzako prestazioetara jotzera behartuta dauden emakumeak daude, beren lan-ibilbideen ezaugarriengatik, edo lan-merkatuan parte hartu ez izateagatik. Lanaren sexuaren arabera banaketaren eta kotizazioekin lotutako gizarte-babesaren ondorioz, emakumeak maizago izaten dira eskubideen subsidiario eta ez horrenbeste haien lehen iturri, gizon gehienekin gertatzen den moduan.

Gizarte-bazterketaren eremuan **pobreziaren estigmatizazioa** ere aipatu behar da. Pertsona pobrea arduragabe gisa, lan bati eusteko eta seme-alabez arduratzeko ezgai modura, «bizizale» gisa edo sistema publikoaren mendekotzat, parasitotzat, hartzen da modu estereotipatuan. Horiez gain beste ezaugarri batzuk eranstean zaizkio, esate baterako, higienarik eza, heziketa txarra, edo gaixotasunak izateko eta kutsatzaile izateko joera handiagoa. Horren ondorioz, gizarte-harremanak eta gizarteko beste kide batzuekin elkarrekintzan izateko aukera mugatu egiten zaizkio, eta baita parte hartzeko modu ezberdinak ere.

Horrenbestez, genero aldetiko estereotipoak, zeharkakoak direnak, dagoeneko iguripen eta gaitasunak egituratzeari dagokionez muga bat badira, gizarte-bazterketaren kasuan kontuan izan behar da estigmatizazio hori aldibereko eran gerta daitekeela horren ondorioak larriagotuz, eta egoera horretan diren emakumeek diskriminazio anitza pairatuko dute. Beste alde batetik, ez da ahantzi behar beste diskriminazio batzuek, kasu honetan ere generoak ukituta, zer-nolako eragina duten, esate baterako desgaitasunen bat duten pertsonen edo pertsona etorkinen kolektiboen kasuan; izan ere, horien aldiberekotasunak ongizate materiala eta emozionala lortzeko aukerak are gehiago gutxituko ditu.

2.5. BERDINTASUNAREN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK

BERDINTASUN-ARLOKO AGIRIAK	ARTIKULUA/ARAUAK
<p>Botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte berma dadin emakumeek eta gizonen era berean baliatzen dituztela eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, laboralak, sozialak, kulturalak, ingurumenekoak eta arauetan aitor lekizkiekeen gainerako eskubideak, barne dela boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea.</p>	<p>3.2 artikulua. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko.</p>
<p>Euskal botere publikoek beren politika eta ekintzetan txertatuko dute, modu transbertsanean, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren forma guztiak prebenitzeko, artatzeko eta desagerrarazteko helburua, kontuan harturik emakumeen eta gizonen desberdikeriaren adierazpenik muturrekoena dela. Halaber, euskal botere publikoen lehentasuna izango da emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimen arreta integrala, oneratzea eta erreparazioa.</p>	<p>3.3 artikulua. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko.</p>
<p>1.-Euskal administrazio publikoek, modu integralean, prebentziozkoan, integratuan, diziplinartekoan, koordinatuan eta pertsonak erdigunean jarrita, behar diren neurriak hartuko dituzte pobreak eta gizarte-bazterketak emakumeengan eragin handiagoa izatearen ondorioei aurre egiteko. Horretarako, alde batetik, genero-ikuspegia txertatuko dute pertsona guztiek oinarizko eskubide sozialak baliatu ahal izango dituztela bermatzea helburu duten sektore-programetan, eta, bestetik, programa espezifikoak diseinatuko dituzte 3.1 artikuluko azken tartekian aipatutako faktoreen eraginpean dauden emakumeen kolektiboentzat.</p> <p>2.-Euskal administrazio publikoek, beren politikak eta programak diseinatu eta ezartzerakoan, kontuan hartuko dituzte guraso bakarreko familiek dituzten behar espezifikoak, eta behar diren neurri juridiko eta ekonomikoak sustatuko dituzte inguruabar horiengatik prekaritate ekonomiko edo sozialean dauden pertsonen baldintzak hobetzeko. Horretarako, behar diren neurriak hartuko dituzte konpentsazio- eta mantenu-pentsioak ordaintzen direla bermatzeko; osagarriak ezarriko dituzte alarguntza-pentsio txikienetarako; desgaitasuna duten amei asistentzia pertsonala emateko, behar badute; baliabide publikoak baliatzeko baremoak edo baldintzak egokituko dituzte, eta bestelako ekintza batzuk egingo dituzte; hartara, prebenitu eta zuzendu egingo dituzte familia mota horietako kideen artean intzidentzia handiagoa duten pobrezia eta bazterketa, bai eta bizitza pertsonala, familiarra eta laborala uztartzeko zailtasun handiagoa ere.</p>	<p>45. artikulua. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko.</p>

BERDINTASUN-ARLOKO AGIRIAK	ARTIKULUAK/ARAUAK
<p>l) Genero-ikuspegia sartzea. Gainerako euskal politika publikoekiko koherentziaz, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak orokorrean ezberdintasunak desagerrarazten eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen lagunduko du, eta, bereziki, pobrezia emakumeengan gizonengan baino eragin handiagoa izan ez dezan prebentzioa egiten eta eragin handiago hori arintzen.</p>	<p>3. artikulua. l) apartatua. 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko dena.</p>
<p><i>Printzipio gidariak</i> c) <i>Berdintasuna eta ekitatea.</i> Euskadiko Herri-administrazioek (...) prestazio eta zerbitzu horietarako irisgarritasuna bermatuko dute ekitate-irizpideak kontuan hartuz, izaera pertsonal eta sozialekin lotutako inolako diskriminaziorik gabe, eta ekintza positiborako eta aukera- eta tratu-berdintasunerako neurriak aplikatzearen kalterik gabe, eta beren esku-hartzeetan sexuen arteko berdintasunaren eta aniztasun sexualaren ikuspegia txertatuz, belaunaldien arteko eta kulturen arteko ikuspuntuekin batera.</p>	<p>Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 7.c) artikulua.</p>
<p>Eusko Jaurlaritzak (...) Prestazio eta Zerbitzuetako Zorroaren (...) aplikazio eta garapenaren gaineko ebaluazio orokor bat burutuko du (...). Ebaluazio horren esparruan prestazio eta zerbitzuek emakume eta gizonengan duten eragina eta horietan genero-ikuspegia zein neurritan txertaturik dagoen aztertuko da, hala badagokio, berdintasunera iristeko aurrerapausoak ematea bermatzeko beharrezkoak diren egokitzapenak egin daitezten.</p>	<p>24.1 artikulua. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuenak.</p>
<p>Artikuluen artean, gizarte-zerbitzuen plangintzan genero-ikuspegia txertatu beharko da</p>	<p>34. 2 artikulua. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuenak.</p>
<p>Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen kudeaketan, edo gizarte-zerbitzuen eremuan erantzukizun publikokoak diren beste jarduera batzuen kudeaketan, esku hartzen duten erakunde pribatuei dagokienez, 7. artikuluan aurreikusitako jokoera-printzipioak errespetatu beharko dituzten beren jardunean, arreta berezia eskainiz c) apartatuan araututako berdintasun- eta ekitate-printzipioari.</p>	<p>60.4 artikulua. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuenak.</p>
<p>Honako hau zainduko da: gizarte-zerbitzuetan esku hartzen duten langile guztien prestakuntza oinarritzko, mailakatu eta iraunkorrerako neurriak hartzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.</p>	<p>78.2 artikulua. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuenak.</p>
<p>Estatistika ofizialak eratzerakoan genero-ikuspegia benetan txertatzen dela bermatuko da.</p>	<p>79. artikulua. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuenak.</p>

3. LEGEDIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKOA
<u>3.2 artikulua.4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzekoa eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzekoa.</u>
<u>EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.</u>
<u>2017-2021 Gizarteratzeko IV. Euskal Plana</u>
ESTATUKOA
<u>3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa</u>
<u>Aukera Berdintasunerako Plan Estrategikoa (2014-2016)</u>
<u>Aukera Berdintasunerako Plan Estrategikoa, 2018-2021 (Lantze-prozesuan)</u>
<u>Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako III. Plan Estrategikoa, 2022-2025</u>
<u>Espainiako Erreina Gizarteratzeko Ekintza Plan Nazionala, 2013-2016</u>
<u>Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren aurkako Prebentziorako eta Borrokarako Estrategia Nazionala, 2019-2023</u>
EUROPAKOA
<u>EBren Genero Berdintasunerako Estrategia, 2020-2025</u>
<u>Emakumeen eta gizonen berdintasunerako konpromiso estrategikoa, 2016-2019</u>
<u>Euskadiko 2014-2020 EGEF Programa Operatiboa</u>
<u>2021-2027 programazio komunitarioko aldiari, genero-ikuspegiakontuan hartuta, Euskadiko EGF+ Programa Operatiboa</u>
<u>Pobrezia eta genero-ikuspegia. 2016ko maiatzaren 26ko Europako Parlamentuaren Ebazpena.</u>
<u>Europako emakumeen pobrezia buruzko txostenaren proiektua. Europako Parlamentuaren ebazpen-proposamena</u>

4. DATU-ITURRIAK

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAKO TASUNA
<ul style="list-style-type: none"> • AROPE eta pobrezia-ariskuaren tasak, autonomia-erkidegoen arabera • EAEko AROPE biztanleak • Pobrezia-ariskuan dauden biztanleak EAEn • Lan-intentsitate txikiko familia-etxeetan –LITE– bizi diren biztanleak • Pobzeziaren atalasetik beherako pentsioa jasotzen duten pertsonak 	EAPN, 2021. Pobzeziaren eta gizarte-bazterketaren adierazlearen jarraipena Espainian, 2008-2020 . Euskal Autonomia Erkidegoa	Ez da aldizkakotasunik ezagutzen
<ul style="list-style-type: none"> • EAEn materialen gabezia larria duen biztanleria 	EAPN, 2020. Pobzeziaren eta gizarte-bazterketaren adierazlearen jarraipena Espainian, 2008-2019 . Euskal Autonomia Erkidegoa	Ez da aldizkakotasunik ezagutzen
<ul style="list-style-type: none"> • Batez besteko errenta pertsona bakoitzeko 	Eustat, 2021. Errenta pertsonal eta familiarraren estatistika	Bi urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • EAEko biztanleria familia-etxebizitzetan, familiaburuaren sexuaren eta pobrezia-egoeren arabera (2008-2020) • EAEko biztanleria familia-etxebizitzetan, familiaburuaren nazionalitatearen arabera • EAEko 65 urtetik gorako pertsonak bizi dituzten benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren bilakaera, sexuaren arabera • EAEn benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren eraginaren ehunekoa, adinaren arabera • Biztanleria familia-etxebizitza gurasobakar amadunetan edo aitadunetan, pobrezia-egoeren arabera • Biztanleria familia-etxebizitza gurasobakar amadunetan, pobrezia-egoeren eta familia-etxearen mota soziodemografikoaren arabera • 65 urtetik beherakoak diren eta lan egonkorra duten emakumeen eta gizonen pobrezia-egoeren intzidentzia-ehunekoa • EAEn ordainketarik egin ez duten edo ordainketan atzerapenak izan dituzten eta hornidura-mozketak izan dituzten familia-etxeen kopuruaren bilakaera (1986-2020) • EAEko benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren banaketa, erreferentziazko pertsonaren ikasketa-mailaren arabera (2020) 	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, 2021. Pobrezia eta Gizarte-Ezberdintasunen inkesta – PGEI 2020–	Lau urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> • Estatuko haurren pobrezia-tasa 	Save the Children, 2021. Guaranteeing Children's future	Ez da aldizkakotasunik ezagutzen
<ul style="list-style-type: none"> • Guraso bakarreko familiak, familiaburuaren sexuaren arabera 	EIN, 2021. Etxeetako Inkesta Jarraitua	Urtean behin

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAKO TASUNA
<ul style="list-style-type: none"> • Haurren pobrezia-arriskua familia-etxe gurasobakar amadunetan • Estatuko familia-etxe gurasobakar amadunak / aitadunak, familia-etxe motaren eta lan-merkatuan duten egoeraren arabera • Estatuko pobrezia-arriskua eta materialen gabezia larriaren arriskua, familia-etxe motaren arabera. 	<p>Haur Pobreziaren aurkako Goi Mandataritza, 2021 b. Madre no hay más que una: monoparentalidad, género y pobreza infantil</p>	<p>Ez da aldizkakotasunik ezagutzen</p>
<ul style="list-style-type: none"> • AROPE adierazlea, familia-etxe motaren arabera, estatu-mailan 	<p>EAPN, 2021 b. Pobreziaren egoera, Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren adierazlearen jarraipena Espainian 2008-2020</p>	<p>Ez da aldizkakotasunik ezagutzen</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Materialen gabezia larria, familia-etxe motaren arabera estatu-mailan • EAEn etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin duten pertsonen ehunekoaren bilakaera (2010-2020) 	<p>EIN, 2021 b. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta</p>	<p>Urtean behin</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen zenbaketa 	<p>SiiS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. Eguía Careaga fundazioa, 2018. EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden egoerari buruzko IV. azterketa (2018)</p>	<p>Ez da aldizkakotasunik ezagutzen</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Gorroto-delituen eta sexu-indarkeriaren biktima diren etxerik gabeko pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera 	<p>Hatento Behatokia (Etxerik gabeko Pertsonen aurkako Gorroto Delituen Behatokia)</p>	<p>Ez da aldizkakotasunik ezagutzen</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko lanetan eta beste pertsona batzuk zaintzen emandako batez besteko denbora, sexuaren arabera 	<p>EUSTAT, 2019. Denboraren Erabileren Inkesta</p>	<p>Ez da aldizkakotasunik ezagutzen</p>
<ul style="list-style-type: none"> • EAeko biztanleria ez-aktiboa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (2021) • EAeko biztanleria ez-aktiboaren ehunekoa, sexuaren eta jarduerarik ezaren kausaren arabera (2021) • EAeko landunen banaketa, sexuaren eta ekonomia-sektoeraren arabera • EAeko langabezia-tasaren bilakaera, sexuaren arabera (2011ko 4. hiruilekotik 2021eko 4. hiruilekora) • Langabezia-tasa, sexuaren eta adin-taldeen arabera (2021) • Soldatuko langileen (kontratu mota) eta landunen (lanaldi mota) ehunekoa, sexuaren eta lan-baldintzen arabera (2021) • Denbora partzialeko lanaldiaren kausak, sexuaren arabera, estatu-mailan 	<p>EIN, 2022. Biztanleria Aktiboaren Inkesta –BAI–</p>	<p>Hiru hilean behin</p>

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIZKAKO TASUNA
<ul style="list-style-type: none"> EAEko jarduera-tasa, sexuaren eta adinaren arabera (2021) EAEko enplegu-tasa, sexuaren eta adinaren arabera 	EUSTAT, 2022. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta	Bi urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> Langileen batez besteko soldata, sexuaren arabera Generoaren araberako soldata-arrakalaren bilakaera EAEn eta estatuan (2008-2019) 	EIN, 2020. Soldaten Egiturari buruzko Inkesta	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> Amatasunagatiko prestazioa jasotzen duten pertsonak Erretiro-pentsioa jasotzen duten pertsonak, sexuaren arabera Alarguntza-pentsioa jasotzen duten pertsonak, sexuaren arabera Erretiro- eta alarguntza-pentsioen batez besteko zenbatekoa DSBE jasotzen duten pertsonak, sexuaren arabera DSBE jasotzen duten pertsonak, sexuaren eta adin-taldeen arabera, EAEn Eusko Jauriaritzako goi-kargudunak, sexuaren arabera Sindikatu gehiengodunetako Idazkaritza Nagusian dauden pertsonak, sexuaren arabera 	Emakunde, 2021. 2020ko zifrak.Emakumeak eta gizonak Euskadin	Urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> Bizitzeko gutxienerako diru-sarrera jasotzen duten helduak eta adingabeak 	Gizarteratze Sarea, 2022. 3 hilean behingo Buletina, 8. zk. – 2022ko martxoa	
<ul style="list-style-type: none"> Laneratzeko arazo bereziak dituzten pertsonak, sexuaren arabera Harreman pertsonalak eta sozialak izateko arazoak dituzten pertsonak Gizarte-zerbitzu publikoetara jo duten familia-etxeak, familiaburuaren sexuaren arabera 	Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, 2019. Gizarte Premiei buruzko Inkesta, 2018 –GPI–	Bi urtean behin
<ul style="list-style-type: none"> Hirugarren Sektoreko soldatapeko langileak, sexuaren arabera Hirugarren Sektoreko soldatapeko langileak, sexuaren eta lanaldi motaren arabera Hirugarren Sektoreko boluntarioak, sexuaren arabera Emakumeen presentzia Hirugarren Sektoreko erakundeetako gobernu-organoetan 	Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2020. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria	Ez da aldizkakotasunik ezagutzen
<ul style="list-style-type: none"> Estatuko elkarte eta fundazioetan dauden emakume zuzendarien ehunekoa 	Lealtad fundazioa, 2020. El liderazgo femenino en el Tercer Sector	Ez da aldizkakotasunik ezagutzen
<ul style="list-style-type: none"> EAEko gizarte-zerbitzuetako langile okupatuak 	EUSTAT, 2021. Gizarte Zerbitzuen Estatistika	Ez da aldizkakotasunik ezagutzen

5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK

AZTERLANAK ETA TXOSTENAK

- Haur Pobreziaren aurkako Goi Mandataritza, 2021. Geografía de la pobreza infantil en España.
- Haur Pobreziaren aurkako Goi Mandataritza, 2021b. Madre no hay más que una: monoparentalidad, género y pobreza infantil.
- Asociación de Ciencias Ambientales, 2018. Pobreza energética en España.
- Caritas eta FOESSA Fundazioa, 2022. Informe sobre Exclusión y Desarrollo Social en Euskadi. Resultados de la encuesta sobre integración y necesidades sociales, 2021
- SiiS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. Eguía Careaga fundazioa, 2018. EAn bizitegi-bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko IV. azterketa, 2018.
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, 2021. Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkestaren txostena, 2020 –PGEI, 2020–
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (2018). Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2018 –GPI, 2018–.
- EAPN, 2021/2021b. Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren adierazlearen jarraipena Espainian, 2008-2020. EAE.
- EAPN, 2020. Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren adierazlearen jarraipena Espainian, 2008-2019. EAE.
- Emakunde, 2020. 2020ko zifrak. Emakumeak eta gizonak Euskadin.
- Emakunde, 2016. EAEko bizitegi-bazterketa larria genero-ikuspegitik.
- Eustat, 2022. Biztanleriaren jardueraren arabera sailkatzeko inkesta
- Eustat, 2021. Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika.
- Eustat, 2021b. Gizarte zerbitzuen estatistika.
- Eustat, 2019. Denboraren erabileraren inkesta.
- Adecco Fundazioa, 2019. Monoparentalidad y empleo
- EIN, 2022. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.
- EIN, 2021. Etxeetako Inkesta Jarraitua –EIJ–.
- EIN, 2021b. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta. Esteka

- EIN, 2020. [Soldaten egiturari buruzko inkesta.](#)
- Ingeniería Sin Fronteras, 2017. [Desigualdad de género y pobreza energética. Un factor de riesgo olvidado.](#)
- Eskubide Sozialen eta 2030 Agendaren Ministerioa, 2021. Espainian dauden bizitegi-bazterketaren egoerak aztertzeko metodologia komun baterako proposamena: [Etixerik gabeko pertsonen gaueko zenbaketak.](#)
- Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2020. [Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria, 2020.](#)
- Gizarteratze Sarea, 2022. [Hiru hilean behingo buletina, 8. zk. 2022ko martxoa.](#)
- Save the Children, 2021. Guaranteeing children's future. [Esteka](#)
- Save the Children, 2017. [Desheredados. Desigualdad infantil, igualdad de oportunidades y políticas públicas en España.](#)
- Unicef, 2021. [El impacto de la pandemia en los hogares con niñas, niños y adolescentes a cargo de mujeres.](#)

ESKULIBURUAK ETA GIDAK

- [Desberdintasunaren, pobrezia- eta gizarte-bazterketaren adierazleak interpretatzeko Oinarrizko Gida.](#) EAPN.

WEB-BALIABIDEAK

- [Euskadi.eus. Eusko Jaurlaritzaren Open Data Baliabideak.](#)
- [European Anti Poverty Network – EAPN \(Pobrezia- eta Gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko Europako Sarea\)](#)
- Lealtad fundazioa, 2022. [Liderazgo femenino en el Tercer Sector.](#)